

XX/XXXX DEKRETUA, segurtasun industrialarena.

EAEko gizartean jarduera industrialak iraganean izan duen, gaur egun duen eta etorkizunean izango duen zentraltasunak eta sektore horri eragiten dioten aldaketa-dinamika sakon eta konplexuek azaltzen eta funtsatzen dute segurtasun industrialaren euskal sistemako estandar altuak etengabe hobetzea. Horrekin bat, zuzenean eragindako sektoreek eta iritzi publikoak segurtasun-maila optimoak bermatzeko egindako eskaera ulerkorrak direla eta, arauketa- eta kontrol-teknika eta -sistema integralak egituratu behar dira.

Eskubideen eta interesen dibertsitatearen eta garrantziaren babesa eta sustapena bultzatzen dituen sistema horrek, arau-proposamenetan zehaztu behar da. Hala, proposamen horiek aldaketaren abangoardian egon behar dute, eta beren helburuak izan behar dira bateratzea, batetik, sistemaren funtzionamendu egokiari lotutako baliabide publiko eta pribatuaren efikazia eta efizientzia, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak interes publikoetarako eskaini behar duen zerbitzurik onena eskaintzea.

Sistemaren eraketan, zuzenbide pribatuko subjektuen lankidetzaren historia eta protagonismo gorakorra, jarduera eta instalazio industrialen garapenak eta funtzionamenduek bete behar dituzten segurtasun-baldintza teknikoaren heterogeneotasun eta zehaztasunaren isla direnak, baita EAEko segurtasun industrialaren sistema sektore ekonomiko arautuaren modernizazio eta garapenaren oinarriaren gain egituratu beharrena ere, industria-segurtasuna zerbitzu publikotzat hartzen duen ideian oinarritu behar dira.

II

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legea indarrean jarrita eta horren bidez botere publikoek autonomia-estatutuaren 10.30. artikuluan bidez beren gain hartu zuten eskumen eskusiboa baliatuta EAEko sektore industrialaren etorkizuneko antolamenduaren oinarriak jarri zituzten eta, horren barnean, segurtasun industrialeko instalazioen eta jardueren segurtasunarenak. Azken arloari buruzko xedapenak garrantzi berezia izan zuten, eta horiek Dekretu honetan osatzeko eta garatzeko asmoa dago, bereziki, eraginpeko ekonomia-sektoreko eta EAEko gizarteko legegintza-aldaketak, joerak, dinamikak eta aldaketak iparrorratz direla.

Aipatutako 8/2004 Legea indarrean dela hainbat tresna arauemaile Legea garatzera bideratu dira, bertan jasotako gaikuntzaren mende. Horrela hedatutako esku-hartze ordenatzailearen (berez estatuko eta Europar Batasuneko botere publikoek arlo honetan hasitako ariketa arautzaileen berdina) ezaugarri da, batik bat, antolamendu-sektore espezifikoaren mende egotea, eta horren emaitza gisa zatiketa eta sakabanatze handiko testuinguru juridiko bat eratzea. Segurtasun industrialaren arloko araudiaren ukitu bereizgarri hauek, hala araututako objektuaren izaera tekniko eta poliedrikoaren nola ekoizpen arauemaileko zentro ugari esku-hartzearen adierazpen direnak, gainditu nahi dira Dekretu hau onartuta; izan ere, panorama arautzaileari egonkortasun, koherentzia eta ulergarritasun handiagoa emango dio.

Tresna hori indarrean jarrita lortu nahi den hobekuntza ez da mugatzen, jakina, indarrean dagoen esparru juridikoaren hobekuntza teknikora. Izan ere, modu kontsekuentean, aurrerapen bat ekarriko du 8/2004 Legean ezarritako printzipioen eta balioen sustapenean. Hori ez da soilik teknika arauemailea hobetzearen emaitza, baizik baita honen guztiaren emaitza ere: karga administratiboak murriztu eta sinplifikatzeko konpromisora bideratutako berrikuntza garrantzitsuak sartzeko, operadore ekonomiko ukituen jarduketara eta erabaki-hartze errazteara eta Jaurlaritzak eskura dituen giza baliabideen eta materialen kudeaketa-arrazionalizazioaren sakontzea.

III

Dekretuak hirurogeita hamabi artikuluko bost kapituluak banatuta, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

I. kapituluak, zazpi artikuluko osatuak, xedapen orokorrak ezartzen ditu. Horien artean daude

arauaren aplikazioaren xedeari eta eremuari buruzkoak, definizio operatiboen zerrenda bat, baita interesdunek Administrazioarekin izan beharreko erlazioei buruzko erregulazio bat ere. Horrela arautzen dira, batetik, arauaren xedeko subjektuek komunikazioetan baliabide elektronikoak erabiltzeko beharra, eta bestetik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 6.7. artikuluan xedatutako ordezkari gaituaren figura, interesdun guztiak joan ahal izango direna, nortasun juridikoa izan ala ez, baita hura aurkeztu ahal izango den modalitateak ere.

II. kapitulua, hiru ataletan banatzen da, horietako lehenengoaren xedea da arautzea segurtasun industrialeko jardueren eta instalazioen hasiera eta martxan jartzea. Lehenengo atal hau, hiru artikuluk osatua, 8/2004 Legearen 4. eta 9. artikuluetako xedapenak garatzen ditu eta, alor honetako Europar Batasuneko araudian jasotako agindua gauzatzeko, araubide orokor bat hedatzen du, kokatzeko askatasuna eta zerbitzua eskaintzeko askatasunak koroatua eta erantzukizunpeko adierazpenaren inguruan egituratua, zeinen erregulazioa gauzatu den 8/2004 Legeak eta bete beharreko oinarrizko araudiak ondore hauetarako ezarritakoari jarraituta.

2. atalean, bestalde, segurtasun industrialeko jardueren eta instalazioen garapenari eta funtzionamenduari buruzko araubide juridikoa dago. Horrela, betekizunen eta betebeharren zerrenda bat ezartzen da. Horiek guztiak, oro har, segurtasun industrialeko jardueren edo instalazioen titularrei eska dakizkieke. Araubide orokor horrekin batera, segurtasun industrialeko zenbait jardueren titularrei soilik eska dakizkiekeen betekizun eta betebeharrak espezifikoen araubide bat egongo da. Bi araubideak, hala 8/2004 Legeko nola estatuko oinarrizko araudiko xedapenetatik eratorriak, Dekretuaren izaera orokor eta sektoreartekoarekin bat eginda eratu dira. Eta Dekretua, azken alderdi horri dagokionez, bete beharreko araudi sektoriala integratzen duten xedapenekin bateragarria izan beharko da. Gainerakoan, interesdunek 13. artikuluan xedatutako zenbait gertakari jakinarazteari buruzko betebeharrak betetzeko, segurtasun industrialeko Administrazioari aurkezten dizkioten dokumentuek izan beharreko forma ezartzen du; aldiz, 16. artikulua ezartzen du segurtasun industrialeko Administrazioaren esku jarri beharreko dokumentazioa jarduera edo instalazioa garatu edo funtzionatzen ari den denboran; xedapen hau aurreko atalean aipatutako zerbitzuaren hasiera eta martxan-jartzearen araubide orokorretik eratorritzen da.

II. kapituluaren hirugarren eta azken atalak segurtasun industrialeko jarduera eta instalazio horien kontrola erregulazioaren mende jartzen du eta, ondore horietarako, ezartzen du kontrol horrek, batez ere, ikuskapenen edo gainbegiratzeen forma izango duela, eta araubide sektorialari esleitzen dio arauz xedatzen diren kontrol-eragiketek izan beharreko izena. 3. atal honetako lehenengo artikulua hirugarren eta laugarren apartatuek kontrol-jarduketan xedea mugatzen dute. Horretarako, jarduketan xedeko errealitateak eta artikuluko bereko bigarenak aipatu baldintzetara edo betekizunetara egokituta ote dauden egiaztatu behar diren kontrol-jarduketak ezartzen ditu.

Atal honetatik, halaber, 26. artikulua nabarmendu behar da; izan ere, segurtasun industrialaren arloan EAEko botere publikoari, orokorrean, eta, era partikularrean, EAEko gobernu organo eskudunei dagokien ahalmen betearazlearen alderdietako bat arautzea da helburua. Horrela, 8/2004 Legearen 8. artikuluko xedapenean oinarrituta, segurtasun industrialeko Administrazioaren ahalmenaren oinarrizko ildoak ezarri dira. Ahalmen hori dela bide, Dekretu honetan edo bete beharreko indarreko araudian xedatutako betebeharrak orokorretatik betekizun partikularrak ondorioztatuta ahal izango ditu (egin beharrekoak, egin behar ez direnak edo jasan beharrekoak), lehen horiek ez-betetzetik eratorritako arriskuak murriztera edo desagerraraztera bideratuta egongo direnak.

Azkenik, 27. artikulua, «Behin-behineko neurriak» arautzen dituenak, oinarrizko legeriak neurri horien eta «kautelazkoen» artean ezartzen duen bereizketari jarraituta, horri dagokion administrazio-prozedura erkideari buruzko estatuko araudiko erregulazioa barne hartzen du, erkidegoko araudian zehapen-ahalari buruz xedatutakoarekin bat etortzeko xedearekin.

III. Kapitulua, «Segurtasun Industrialeko Administrazioa» izenburua duena, bi ataletan banatzen da. *Lehenengo atalean* Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren arauketa dago, Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 208/2008 Dekretuko xedapenak integratuta gauzatu dena. Xedapen horietan garrantzitsuak ez diren aldaketak sartu dira, araudi-teknikaren arlokoak eta hizkuntza ez-sexista erabiltzeko buruzkoak, baita lanpostuen zerrendan adierazitako zenbait lanpostuen izenak eguneratzeko buruzkoak ere.

Bigarren atalean, bestalde, «Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroa» sortu eta arautzeko arauak daude. Erregistro hau 8/2004 Legearen 5. artikuluan xedatutako Erregistro Industrialaren parekoa da, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osorako erregistro elektronikoa, publiko eta bakarra da. Era berean, industriaren arloan eskumena duen Sailari atxikitzen zaio eta bere helburuak eta aplikazio-eremua zehazten dira. Halaber, inskriba daitezkeen datuen jatorria arautzen da, tartean, «datu osagarrien» definizioa. Hala datu hauek guztiak hartzen ditu: erantzukizunpeko adierazpena, jakinarazpena edo baimen-eskaera aurkeztu zen datari eta agintaritzari buruzkoak, erantzukizun zibil profesionalaren aseguruari buruzkoak, edo gauzatu diren kontrol-jarduketari buruzkoak. Sarbide eta hedapenerako arauak, 208/2008 Dekretuak Erregistro Industrialari buruz ezartzen dituenaren baliokideak, 47. artikuluan xedatzen dira; aldiz, 48. artikuluan biek izan beharreko elkarreragingarritasuna adierazten da, administrazio publikoaren jarduketan izan beharreko efikazia- eta efizientzia-printzipioen arabera.

IV. kapituluaren Dekretuak arautzen duen arloko zehapen-ahalaren erregulazio osoa dago eta lau ataletan banatzen da. Horietako lehenean xedapen orokorrak daude, eta horien artean daude eskumenei buruzkoak, zehatzeko ahala baliatzea arautzen duten printzipioei buruzkoak eta erantzukizun- eta egiletza-araubideei buruzkoak. Horren helburua da corpus batean harmonizatu eta biltzea bete beharreko erkidegoko eta estatuko legeriako preskripzioak, eta aldi berean, ahal den heinean, mugatzea eta aurreratzea atal honetan araututako arloetan eragin dezaketen maila bereko edo goragoko beste xedapen batzuei eman beharreko tartearak.

IV. Kapituluaren 2. Sekzioa 8/2004 legearen VI. Kapituluako dekretuan araututa dagoen arau-hausteen arloari bidaltzen zaio, Hirugarren Sekzioak egiten duen bezala, lege-arautik hainbat agindu bateratu eta berrantolatzen ditu, era berean, bertan ezarritako alderdien erregelamenduzko garapena egiten duelarik.

IV. kapituluako laugarren eta azken atalak Dekretu honen arabera hasten diren zehapen-prozeduren oinarriko alderdi batzuk arautzen ditu. Alderdi hori dela eta, zehapen-arloan hala erkidegoko legeriatik eratorritako manuak nola estatuko legeriak onartutako oinarriak txertatzen ditu.

V. kapituluak, bestalde, 8/2004 Legea garatzen du, hertsapen-isun (lehenengo atala) eta betearazpen subsidiario (bigarren atala) bidezko nahitaezko betearazpenari dagokionez.

Hertsapen-isunei buruzko atalean, indarrean dagoen araudi-esparruarekiko berrikuntza nagusi gisa, hauek guztiak daude jasota: definizio bat du bete beharreko egintzak agindutakoa betetzeko gutxieneko aldiaren ingurukoa; isunen zenbatekoa zehatzeko irizpideari buruzko berariazko aipamena; eta isunak ezarriko dituzten prozeduren ebazpena eman eta jakinarazteko epearen ezarpena.

Bigarren atalak hertsapen-isunei buruzko atalaren antzeko egitura jarraitzen du. Horrela, 70. artikuluan xedapen orokorrak daude, 71. artikuluan organo eskudunari buruzko xedapenak daude eta 72. artikuluan Dekretu Proiektuak araututako arloan emandako administrazio-egintzen betearazpen subsidiarioa arautuko duten arauak zehazten dira.

Lehenengo Xedapen Gehigarrian instalazioen erregulazioaren araubide juridikoa ezartzen da, eta horretan ezartzen denaren arabera, martxan jartzeko preskripzioak bete gabe funtzionamenduan daudenak dira.

Bestalde, bigarren Xedapen Gehigarrian nortasun juridikorik gabeko erakundearen araubidea dago. Aipatutako araubidea diseinatu da 39/2015 Legeak horretarako ezarritakoarekin bat eta, zehapen-arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoarekin bat, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoarekin bat.

Hirugarren Xedapen gehigarriak, industria-instalazioak abian jartzeko prozedura errazteko den urriaren 30eko, 229/2012 dekretuaren ildo jarraikiz, energia-hornidurarako zehaztasun bereziak arautzen ditu.

Laugarren eta azken Xedapen Gehigarrian 1. Ataleko III. Kapituluako xedapenak indarrean jartzetik eratorritako egoera arautzeko xedapen bat du.

Xedapen Iragankor Bakarraren bidez, Dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako

prozeduren araubide juridikoa ezartzen da; aldiz, Xedapen Indargabetzaile Bakarrak preskribatu egiten du indarreko xedapenak berariaz indargabetzea, horien edukia arau honetako testuan txertatu delako edo arau honetan xedatutakoarekin bat ez letorkeelako, bere osoan iraunez gero.

Azken xedapenetatik lehenengoak eta bigarrenak lantzen dituzten indarreko xedapen juridikoen aldaketaren oinarria da, era berean, horiek (jatorrizko idazketa mantenduz gero) Dekretu hau osatzen duten xedapenekin bat ez etortzea.

Azken xedapenetatik hirugarrenaren bidez, bukaeran, Dekretuan jasotako xedapenen etorkizuneko erregelamendu-garapenak gaitzen dira, Sail eskuduneko titularrak onartutako xedapen orokor baten bidez egin beharko direnak.

Hori guztia dela eta, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko sailburuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 20...(e)ko -----aren -----(e)(a)n egindako bileran hala erabaki eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legea garatzea segurtasun industrialaren arloan.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Dekretu honetako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean jarduera garatu edo bertan dauden segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio guztiei aplikatu behar zaizkie.
2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, ibilgailuen azterketa teknikoa bere araudi espezifikoak arautuko du, eta, Dekretua aplikagarri den guztian, bertan jasotako xedapenek.

3. artikulua. Definizioak

Dekretu honetan xedatutakoetarako, definizio hauek ezartzen dira:

- a) Segurtasun industrialia: segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapenetik edo funtzionamendutik eratorritako arriskuek eta kalteek pertsonei, ondasunei edo ingurumenari eragitea prebenitzeko eta mugatzeko indarrean dauden arau-xedapenen multzoa.
- b) Segurtasun industrialeko administrazioa: segurtasun industrialaren arloan eskumenak dituzten organo eta unitate administratiboak, eta horiei lotuta edo mende dauden zuzenbide publikoko erakundeak.
- c) Titularra: kasuan kasuko baimenean, erantzukizunpeko adierazpenean edo jakinarazpenean era horretan izendatutako pertsona fisiko edo juridikoa.
- d) Segurtasun industrialeko jarduera: hasiera, garapena edo kontrola segurtasun industrialeko araubidearen mende dituen eragiketa oro, xede dituen segurtasun industrialeko produktuak edo horiek baliaraztetik eratorritako azpiproduktuak lortzea, eraldatzea, garraiatzea, merkaturatzea, banatzea, hornitzea, biltegitratzea, bilgarria jartzea, ontziratzea edo prozesatzea, eta segurtasun industrialeko instalazioak diseinatzea, instalatzea, konpontzea, mantentzea edo kontrolatzea, edo segurtasun

industrialeko beste jarduera batzuk kontrolatzea.

- e) Segurtasun industrialeko instalazioa: sektoreko erregelamenduan zehaztutako aparatu, ekipamendu, produktu, elementu eta osagai multzoa, martxan jartzeko, diseinatzeko, funtzionatzeko edo kontrolatzeko, segurtasun industrialeko araubidearen mende dagoena.
- f) Segurtasun industrialeko produktua: sektoreko erregelamenduan izen hori emandako gauza higigarria, eta segurtasun industrialeko araubidearen mende dagoena ekoizpena, eraldaketa, garraioa, bilgarriratzea, ontziratzea, prozesatzea, mantentze-lanak edo kontrola.
- g) Sektoreko erregelamendua: segurtasun industrialaren arloan indarrean dagoen xedapena edo horien multzoa, zeinaren bidez ezartzen baitira instalazioak edo jarduerak, edo horietatik eratorritako produktuak edo azpi produktuak, abiarazteko, zerbitzuan jartzeko, diseinatzeko, garatzeko, funtzionatzeko edo kontrolatzeko bete beharreko berariazko baldintzak edo betekizunak.
- h) Agente kolaboratzailea: Dekretu honetan ezarritakoa betetz, agente, kontrol-erakunde edo agente ikuskatzaile gaituaren izaera duen pertsona fisiko edo juridikoa.

4. artikulua. Segurtasun industrialeko araubidea

1. Segurtasun industrialeko araubidea xedapen hauek osatzen dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legean arlo horren gainean jasotako xedapenek, Dekretu honetako xedapenek, bete beharreko sektoreko erregelamenduek eta aplikatu beharreko oinarriko xedapenek edo xedapen osagarriek. Halaber, araubide hori osatuko dute Europar Batasuneko arauak, horietan xedatzen diren baldintzetan.

2. Xedapen orokorren bidez ezarri ahal izango dira baldintza edo betekizun teknikoak, segurtasun industrialeko jarduera, instalazio, produktu edo azpi produktu jakin batzuen abiarazpena, zerbitzuan jartzea, garapena, funtzionamendua, ekoizpena, merkaturatzea, erabilera, prozesatzea, berrikuspina, ikuskapena edo kontrola zehazteko. Xedapen horiek, kasu guztietan, Dekretu honetan jasotako nahitaezko xedapenetara egokituko dira.

5. artikulua. Komunikazioa segurtasun industrialeko administrazioarekin

1. Jakinarazpenen, erantzukizunpeko adierazpenen eta baimen-eskaeren aurkezpena, baita segurtasun industrialeko administrazioari zuzentzen zaizkion gainerako dokumentuen aurkezpenak ere, baliabide elektronikoen bidez egingo dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bitartez.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako betebeharra, pertsona juridikoaren baldintza betetzen duten pertsona interesdun guztiei edo segurtasun industrialeko jarduera baten pertsona fisiko titularrari aplikatzen zaie.

2. Zuzendaritza eskudunak jakinarazpenen eta erantzukizunpeko adierazpenen ereduak argitaratuko ditu. Eredu horiek, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 5. artikulua hiru garren apartatuan ezarritako alderdiak aintzat hartuko dituzte, eta sektore-esparruaren arabera izan ahalgo dira, baita segurtasun industrialeko instalazio edo jarduera motaren arabera ere.

Aurreko lerrokadan aipatutako ereduak, borondatezko eran erabiliko direnak kontrako xedapenik ez badago, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen argitaratuko dira.

3. Segurtasun industrialeko administrazioak, efikazia- eta efizientzia-printzipioen arabera, zenbait dokumentu eta datu aurkezteko araubide bereziak ezar ditzake. Dokumentu eta datu horiek ez dira aurkeztutzat hartuko bestelako baliabideen bidez aurkezten badira.

6. artikulua. Ordezkaritza

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren dokumentuak hala segurtasun industrialeko jardueraren edo instalazioaren titularrak nola bere ordezkaririk aurkeztu ahal izango ditu, artikulua honetan eta bete beharreko gainerako araudian xedatutako zehaztapen eta baldintzetan.

2. Agente kolaboratzaileak gaituta egongo dira dekretu honen xedapenetan oinarrituta abiarazi diren prozeduretako interesdunen ordezkaritzan baimen eskeak, erantzukizunpeko adierazpenak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez aurkezteko

Ordezkaritza gaitu orokor hori baliatzeak betebeharrak hauek onartzea dakar:

a) Interesdunarekin batera dokumentu bat formalizatzea, ordezkaritza hori baliatu aurretik. Bertan, bien identifikazio-datuak adieraziko dira, baita ordezkaririk bidez jardutearen xedea eta ondorioak ere.

b) Ordezkaritza egiaztatzea artikulua honen bosgarren apartatuan xedatutako baldintzetan, organo eskudunak horrela eskatzen duenean.

c) Ardurarekin jardutea eta prozeduraren interesdunari behar beste informazio ematea, haren ordezkaritzan segurtasun industrialeko administrazioan gauzatu dituen izapideei buruz.

3. Halaber, era espezifikoan gaitu ahal izango dira aurreko apartatuan aipatutako dokumentuak baliabide elektronikoen bidez aurkezteko, segurtasun industrialeko administrazioarekin xede horretarako hitzarmenak sinatzen dituzten interesdun fisiko edo juridikoen ordezkaritzan.

Aipatutako hitzarmenen araubide juridikoa erkidegoko araudian ezarriko da eta, horrelakorik ez bada, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoa.

4. Salbu eta berariaz xedatzen ez bada, ordezkaririk gaitutako gauzatutako izapideek dakartzaten jardura administratiboak ulertuko da interesdunekin egiten direla.

5. Bigarren eta hirugarren apartatuaren xedatutako gaikuntza orokor eta espezifikoaren bidez zehaztu ahal da horien bitartez baliatzen den ordezkaritzaren baliozkotasunaren presuntzioa, alde batera utzi gabe segurtasun industrialeko administrazioak, edozein unetan, ordezkaritza hori egiaztatzea eskatu ahal izango duela. Ordezkaritza hori egiaztatuko da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikulua laugarren apartatuan ezarritakoaren arabera.

6. Artikulu honetan aipatzen den ordezkaritzaren baldintzak eta betekizunak edo ordezkaritza baliatzeak eratorritako betebeharrak ez betetzeak berekin ekarri ahal izango du kasuan kasuko izapidea edo izapideak ez gauzatu hartzea, ez-betetze horretatik erator daitezkeen administrazio-erantzukizunen edo beste arloren batekoen kalterik gabe.

7. artikulua. Segurtasun industrialeko instalazioen identifikazioa

1. Segurtasun industrialeko instalazioak era bakar eta argian identifikatu beharko dira martxan jartzen direnetik martxan egoteari uzten dioten arte.

2. Xedapen orokorren bidez ezarriko dira baliozkotzat jotako identifikazio-sistemak (instalazio motaren arabekoak izan ahal direnak) eta horiek ezartzeko baldintzak.

Aipatu sistemak dagokien instalazioari buruzko informaziorako sarbide elektronikoa eskaini beharko dute.

II. KAPITULUA

Segurtasun industrialeko instalazioen eta jardueren araubide juridikoa

1. ATALA. SEKTORE INDUSTRIALEKO JARDUERAK ETA INSTALAZIOAK ABIARAZTEA ETA ZERBITZUAN JARTZEA

8. artikulua. Araubide orokorra

1. Segurtasun industrialeko jardueren ezarpenari, hedapenari eta lekualdaketari dagokienez, kokatzeko askatasuna eta zerbitzu-prestazio askea aitortzen dira, dekretu honetan ezarritako mugekin.
2. Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da segurtasun industrialeko jarduera bat hasteko edo instalazio bat martxan jartzeko.
3. Segurtasun industrialeko jardueren eta instalazioen abiarazpena eta zerbitzuan jartzea indarreko araudiaren mende egongo dira, non eta ez den kontrakoa xedatzen edo era arrazoituan ebazten.

9. artikulua. Baimenen araubidea

1. Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten abiarazpena edo martxan jartzea artikulua honetan xedatutako araubidearen mende badago, administrazioaren baimena beharko da.
2. Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioa abian jarri edo ezarri ahal izateko administrazioaren baimena izatea eskatu ahalko zaie interesdunei, baldin eta diskriminazio eza, premia eta proportzionaltasuna aski arrazoitzen badira, eta legez halaxe xedatzen bada, baita Europar Batasuneko arauditik edo nazioarteko tratatuetatik edo itunetatik eratorritako betebeharrak betetzeko beharrezkoa bada ere.
3. Salbuespenez, martxan jarri ahalko dira diseinuarengatik, norakoagatik, kokapenarengatik, kokalekuarengatik edo behar bezala justifikatutako beste inguruabar batengatik segurtasun-baldintzen arloan indarrean dauden preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten segurtasun industrialeko instalazioak. Aipatutako instalazioak zerbitzuan jartzeko, edozein kasutan, agintaritza eskudunak egoki iritzitako segurtasun-neurriak errekeritzen dira, edo segurtasun industrialeko betekizunak agintaritza eskudunak xede horretarako baliokidetzat hartzen dituenak betetzen direla egiaztatu beharko da. Neurri eta baldintza horiek erabat egongo dira diskriminazio ezaren, premiaren eta proportzionaltasunaren printzipioen mende.

Aurretik ezarri denari begira emango den ebazpena arrazoitua izango da. Hau eman eta jakinarazteko epea 6 hilabetekoa izango da, eskaerak Administrazio eskudunaren erregistroan harrera duen egunetik zenbatzen hasita, izapidetu dadin.

10. artikulua. Erantzukizunpeko adierazpenak

1. Erantzukizunpeko adierazpenenek, segurtasun industrialeko jardueren edo instalazioen hasiera edo zerbitzuan jartzea baimenduko dute, bertan aipatutakoaren arabera aurkezpen egunetik aurrera. Aurrekoa Dekretu honek eta gainontzeko ordenamendu juridikoak segurtasun industrialeko administrazioari eta agente kolaboratzaileei esleitzen dizkien ahalmenak kaltetu gabe eta Dekretu honetan betetzeko diren baldintzak eta betebeharrak baztertu gabe ulertu behar da.
2. Eska daitekeen erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak gaitasuna emango dio, artikulua honetan xedatutako baldintzetan, kasuan kasuko segurtasun industrialeko jarduera Estatu osoan garatzeko. Erantzukizunpeko adierazpena Euskal Autonomia Erkidegokoak bestelako Administrazio Publiko batean aurkeztu duten interesdunek beren zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte eta era askean ezarri ahal izango dira beste erkidego horretan, artikulua honetan xedatutako baldintzetan. Aurrekoa Dekretu honen 5.3. artikulua dioen moduan, segurtasun industrialeko administrazioak beharrezkoak bezala definituta dauden erregimen berezien bidez datuen aurkezpena errekeritu dezakeela kontuan hartuz ulertu behar da.

3. Segurtasun industrialeko instalazio bat martxan jartzea helburu duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea ez dago lotuta eta bateragarria da segurtasun industrialeko jarduera abiarazteko erantzukizunpeko adierazpena edo baimen eskea aurkeztearekin, instalazioa eta jarduera lotuta egonda ere.

4. Erantzukizunpeko adierazpena izango da interesdunak sinatutako dokumentu bat zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunaren pean, betetzen dituela Dekretu honetan ezarritako betekizunak eta indarrean dauden gainontzako araudiak segurtasun industrialeko jarduera hasi eta garatzeko edo segurtasun industrialeko instalazioa zerbitzuan jartzeko ezarritako betekizunak, hori egiaztatzen duen dokumentazioa segurtasun industrialeko Administrazioaren eskura jartzen duela, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak horiek betetzeko instalazioen edo jardueren garapen- eta funtzionamendu-aldi osoan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren betekizunak espresuki jasota egon behar dute, argi eta zehatz, dagokion erantzukizunpeko adierazpenean. Segurtasun industrialeko administrazioak edozein unetan errekeritu ahal izango du aurkez dakiola aipaturiko eskakizunak betetzearen egiaztapirak.

5. Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren batek zehaztasunik ez bada edo faltsua bada, edo aurkeztu ez bada, edo agintaritza eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzearen egiaztapirak, bertan behera geratu beharko da segurtasun industrialeko jardueraren edo instalazioaren garapena edo funtzionamendua, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak.

Halaber, agintaritza eskudunak inguruabar horietatik bat edo batzuk daudela adierazten duen ebazpena eman ahal izango du. Horren bidez, interesduna behartu dezake egoera juridikoa segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioa abiarazi edo martxan jarri aurrekora leheneratzera, eta xede bereko erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko urte bateko debekua ezar diezaiokete, betiere sektoreko erregelamendu aplikagarrian ezarritako baldintzen arabera.

Alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua laugarren apartatuan xedatutakoa, aurreko lerrokadan aipatutako ebazpena eman aurretik, hiru eguneko epea egongo da interesdunari entzunaldia egiteko.

2. ATALA. SEGURTASUN INDUSTRIALEKO JARDUEREN ETA INSTALAZIOEN GARAPENA ETA FUNTZIONAMENDUA

11. artikulua. Betekizun eta betebeharren araubidea

1. Segurtasun industrialeko jarduera baten garapena edo segurtasun industrialeko instalazio baten funtzionamendua soilik mantendu ahal izango da kapitulu honetan eta indarrean dagoen gainerako araudian ezarritako betebeharrak orokor eta espezifikak betetzen badira.

2. Betekizun eta baldintza orokorrak bete daitezela eskatu ahal izango zaie, alde batera utzi gabe artikulua honetako laugarren apartatuan ezarritakoa, Dekretu honen aplikazio-eremuko segurtasun industrialeko jarduera baten edo segurtasun industrialeko instalazio baten pertsona fisiko edo juridiko titularrei.

3. Betekizun eta baldintza espezifikak bete daitezela eskatu ahal izango zaie, alde batera utzi gabe artikulua honetako laugarren apartatuan ezarritakoa, soilik Dekretu honetako 17., 18. eta 19. artikuluen mende dauden pertsona fisiko edo juridikoei. Betekizun eta betebeharrak espezifikak horiek betetzea kasu guztietan bateragarria izango da aurreko apartatuan aipatzen diren betekizun eta betebeharrak orokorrak betetzeko eskakizunarekin.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako betekizun eta betebeharrak bete daitezela eskatu ahal izango zaie, halaber, kapitulu honetako manuak ez betetzeagatik segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten titular izaera ukatu zaizen pertsona fisiko edo juridikoei, baldin eta titulu legitimo bat badute ahalmena ematen diena instalazio horiek edo segurtasun industrialeko jardueretarako

eskubidea erabiltzeko edo baliatzeko. Bi pertsonari edo gehiagori eska dakiekeen betekizunak edo betebeharrak betetzea, era solidarioan erantzungo dute.

12. artikulua. Betekizun orokorrak.

Alde batera utzi gabe araudi sektorialean eta aplika daitekeen espezifikoan ezarritakoa, segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio bat garatu edo funtzionatzeko betekizun orokorrak dira hauek:

- a) Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio horren titularra ez egotea kasuan kasuko lanbidean, ogibidean, industrian edo merkataritzan jarduteko desgaitua, epai irmo baten arabera.
- b) Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio horren titularrak ez izatea segurtasun instalazio edo industrialeko jarduera hori abiarazi, garatu edo martxan jartzeko debekurik, ebazpen irmo baten arabera.
- c) Titularrak instalaziook edo segurtasun industrialeko jardueretarako eskubideak erabili eta baliatzeko ahalmena ematen dion titulu legitimoa izatea.

Betekizun hori ez dute bete beharko Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko erakundeek, izaera hori dutenei betekizun hori betetzea eskatzearen kalterik gabe.

- d) Dena delako segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioa bat etortzea Dekretu honetan, hori garatzeko ematen diren xedapenetan eta aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritako preskripzio eta betekizun teknikoekin.
- e) Hala dagokionean, titularrak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea edo titular den jardueraren edo instalazioaren hasiera edo martxan jartzea baimentzeko ebazpen bat lortzea, kapitulu honetako lehenengo atalean ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. Betebehar orokorrak

Alde batera utzi gabe araudi sektorialean eta aplika daitekeen espezifikoan ezarritakoa, segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten titularrak garapen- edo funtzionamenduan baldintza bete beharreko baldintza orokorrak dira hauek:

- a) Segurtasun industrialeko administrazioaren eskura izatea 15. artikuluan aipatzen den nahitaezko dokumentazioa.
- b) Titularra den edo mantentze-lanak, konponketak eta kontrol-lanak egiten dituen segurtasun industrialeko instalazioen edo jardueren funtzionamendua bertan behera uztea edo uzteko agintzea, araudi sektorial aplikagarrian ezarritako baldintza edo betekizun teknikoak betetzen ez badituzte.
- c) Segurtasun industrialeko administrazioarekin elkarlanean aritzea Dekretu honetan eta bete beharreko indarreko gainerako araudian xedatutako baldintzetan.
- d) Agintaritzaren eskudunaren aurrean aurkeztea artikulua honetan eta indarreko gainerako araudian ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzearen egiaztagiria beti ere, ez badago Dekretu honen 16.5 artikulua aurreikusten duena jasoz, Administrazioaren esku jarritako dokumentazioaren barne.

Aipaturiko betebeharra betetzeko epea 5 egunekoa izango da. Bost eguneko epe hori luzatu ahal izango da ofizioz edo alderdiek eskatuta, inguruabarren arabera egokia bada eta horrekin ez badira kaltetzen hirugarrenen eskubideak. Luzapen horren baldintzak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik ezarriko dira.

Letra honetan xedatutako betebeharra artikulua honetako a) letran xedatutakoa alde batera utzi gabe ulertu behar da.

e) Titularra den jardueran edo instalazioan gertatutako istripuak ahalik eta azkarren jakinaraztea segurtasun industrialaren arloan eskumena duen organoari, betiere, hogeita lau ordu igaro baino lehen, gertaeraren berri izan denetik hasita.

Dekretu honetan ezarritakoaren ondoretarako, istripuztat hartuko dira segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapen edo funtzionamendu normala aldatzen duten aldi bateko gertaerak, horietan pertsonak, ondasunak edo ingurumena kaltetzen badira.

f) Segurtasun industrialeko administrazioari ezagutaraztea, gertatzen diren unetik hasita, bost eguneko epean, eta jakinarazpen bidez, jardueraren edo instalazioaren titularra izateagatik ezagut ditzakeen gertaera hauek:

f.1.- Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio bat garatzeko eta funtzionamenduan egoteko ezarritako betekizunak gerora ez betetzea.

f.2.- Instalazioen titulartasuna edo segurtasun industrialeko jardueraren edo instalazioaren titularraren izen soziala edo forma aldatzea.

f.3.- Segurtasun industrialeko instalazioak lekualdatu izana, kontuan izan gabe lekualdatze horrek prozesuetan, gaitasunean edo ekipamendu-ondasunetan aldaketak ekartzen dituen.

f.4.- Segurtasun industrialeko jarduera nabarmen aldatzea, horrela ulertuko da kasu guztietan produktu tratatuen edo lortutakoen edo eskainitako zerbitzuen klasea, espeziea edo izaera aldatzea.

f.5.- Segurtasun industrialeko instalazioa handitzea alegia, ekipamendu-ondasunen egoera aldatzea, baina beti instalazioen ahalmen osoak edo partzialak handitzeko egiten bada. Handitzea izango da, era berean, instalazioak aldatzea, eraikitako azalerak handitzeko, edo industria-jarduera berri bat egitea, indarrean dagoen erregistro-inskripzioan ageri denaz bestelakoa.

f.6.- Segurtasun industrialeko instalazioak zerbitzutik kanpo jartzea edo segurtasun industrialeko jarduera etetea.

g) Segurtasun industrialeko administrazioiko teknikariei, kontrol-erakundeei edo gaitutako agente ikuskatzaileei sartzan uztea segurtasun industrialeko jarduera garatzen den tokira edo segurtasun industrialeko instalazioak dauden tokira, dagozkien kontrol-eginkizunetan, segurtasun industrialeko erregelamendu-xedapenak betetzen direla egiazta dezaten.

h) Industria Segurtasuneko Administrazioak bere kontrol eskumenak gauza ditzan eta eragile kolaboratzaileek beraien eginkizunak bete ditzaten errazteko ezinbestekoak diren neurriak hartzea

i) Hala dagokionean, sinatzea aplikatu beharreko erregelamendu sektorialaren arabera instalazioak mantentzeko egin beharreko kontratuak.

j) Hala dagokionean, eta aplikatu beharreko erregelamendu sektorialak horrela ezartzen duenean, behar den garaian eskatzea aldizkako ikuskatzeak edo berrikuspenak egin daitezela, eta, horretarako, sarbidea erraztea agente kolaboratzaileei, beren eskura jarriz azken ikuskatze edo berrikuspenaren ziurtagiria.

14. artikulua. Jakinarazpenak

1. Jakinarazpentzat hartuko da interesdunak agintaritza eskudunari identifikazio-datuak eta haren xedea mugatzeko behar diren datuak adierazten dizkion dokumentua. Azken datu horiek izango lirateke dena delako baldintzak eta gertaera horietan inplikaturik dauden pertsonak individualizatzen dituztenak.

Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondoretarako, identifikazio-datuak izango dira izena eta Industria segurtasunari buruzko Dekretuaren Zirriborroa, 1 B.

abizena eta nortasun-agiri nazionala edo identifikazio fiskaleko zenbakia, pertsona fisikoaren kasuan, eta, pertsona juridikoaren kasuan, izen soziala eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

2. Aurreko artikuluko e) eta f) letretan aipatutako gertaerak segurtasun industrialeko Administrazioari jakinarazteko, jakinarazpen bat aurkeztu beharko da, atal honetako termino eta baldintzetan.

15. Artikulua: Egiaztatzea

Arloko araudiak ezartzen dituen eskakizun eta baldintza teknikoak betetzen direla, azken honetan eta industria segurtasuneko erregimena osatzen duten araudietan aurreikusten diren baliabide eta baldintzak erabiliz egiaztatuko da.

16. artikulua. Nahitaezko dokumentazioa

1. Segurtasun industrialeko jardueren titularrek segurtasun industrialeko Administrazioaren eskura mantendu beharko dute, segurtasun industrialeko jardueraren hasieratik, dokumentazio hau:

a) Hala dagokionean, bete behar dituzten betekizun espezifikoaren indarreko araubidean eska daitezkeen dokumentuak.

b) Dokumentazio teknikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako baldintzetan.

c) Dekretu honetan edo aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera eska daitezkeen beste dokumentu batzuk.

2. Proiektua behar duten segurtasun industrialeko jardueren titularrek segurtasun industrialeko Administrazioaren eskura mantendu beharko dute, segurtasun industrialeko zerbitzua martxan jartzen denetik, dokumentazio hau:

a) Eskumena duen teknikariak sinatutako proiektua.

b) Eskumena duen teknikariak egindako ziurtagiria. Bertan adieraziko du segurtasun industrialeko instalazioa aurreko apartatuan adierazitako dokumentaziora egokitzen den eta, hala dagokionean, dagozkion arautegiko baldintza tekniko eta preskripzioak betetzen dituen.

c) Dokumentazio teknikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako baldintzetan.

d) Dekretu honetan edo aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera eska daitezkeen beste dokumentu batzuk.

3. Proiektua behar ez duten segurtasun industrialeko jardueren titularrek segurtasun industrialeko administrazioaren eskura mantendu beharko dute, segurtasun industrialeko zerbitzua martxan jartzen denetik, dokumentazio hau:

a) Memoria edo dokumentazio baliokidea, aplikatu beharreko araudi sektorialak horrela ezartzen duenean.

b) Gaitutako enpresa instalatzaileak egindako instalazio-ziurtagiria. Bertan, adieraziko da, hala dagokionean, dagozkion arautegiko baldintza teknikoak eta preskripzioak betetzen direla.

c) Dokumentazio teknikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako baldintzetan.

d) Dekretu honetan edo aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera eska daitezkeen beste dokumentu batzuk.

4. Arautegi bidez ezartzen den kasuetan, segurtasun industrialeko instalazioen titularrei eskatu ahal izango zaie kontrol-erakunde batek egindako ziurtagiria izan behar dutela.

5. Dekretu honetako 5. artikulua arabera, segurtasun industrialeko Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez erlazionatu behar duten pertsona fisiko edo juridikoek bermatu beharko dute artikulua honetan xedatutako dokumentazioa Administrazio horren eskura jartzen dutela baliabide elektronikoen bidez eta berehala.

Xedapen orokor bidez ezarriko dira baldintza eta betekizun teknikoak, eta horien bidez bete beharko da aurreko lerrokadan ezarritako xedapena.

Segurtasun industrialeko Administrazioak jarriko ditu behar diren baliabideak Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez erlazionatzeko betebeharrak ez duten pertsonak artikulua honetan xedatutako betebeharra betetzeko, apartatu honetan ezarritako baldintzetan.

17. artikulua. Gaitutako agenteak

1. Gaitutako agenteak dira segurtasun industrialeko instalazioak edo jarduerak diseinatu, instalatu, mantendu, konpondu edo kontrolatzeko jardueren pertsona fisiko edo juridiko titularrak.

2. Gaitutako agenteak 11., 12. eta 13. artikuluetan xedatutako betekizun eta betebeharren araudiaren mende egongo dira, salbu eta 13. artikuluko i) eta j) letretan xedatutako betebeharren mende.

3. Aurreko apartatuan aipatzen den araubide orokorra osatzen duten betekizunez gain, gaitutako agenteek jarraian xedatzen diren espezifikak bete beharko dituzte:

a) Behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak izan beharko dituzte segurtasun-baldintza optimoetan egiteko beren jarduerak; horrez gain, aplikatu beharreko araudi sektorialean xede berdinerako espezifikatzen direnak ere izan beharko dituzte.

b) Aseguru-kontratu bat edo bere jardueran aritzean izan dezakeen erantzukizuna estaltzeko bestelako berme baliokide bat sinatzea (egiten duten segurtasun industrialeko jarduera hasi baino lehen eta jarduera garatzen den bitartean ondorekin mantendu beharko du), Dekretu hau garatzeko xedapenetan edo aplikatu beharreko araudi sektorialean ezartzen den zenbatekoarekin.

c) Pertsona fisikoak direnean, jarduera hasi aurretik izatea, garatuko duten jardueran behar bezala aritzeko behar den ezagutza teoriko eta praktikoa eta gaitasuna dutela egiaztatzen duen titulua, ziurtagiria edo beste edozein dokumentazio.

Aurreko lerrokadan aipatzen den ezagutza ziurtatzen duten tituluak, ziurtagiriak eta dokumentazioa xedapen orokor bidez zehaztuko dira.

Pertsona juridikoaren izaera duen gaitutako eragile baten edo beste edozein eragile kolaboratzaile baten kontura, segurtasun industrialeko instalazioen diseinu, instalazio, mantentze eta kontrol jarduerak materialki gauzatzen dituzten pertsona fisikoei ere aplikatuko zaizkie c) atal honetan egiten diren aurreikuspenak.

4. Bigarren apartatuan aipatzen den araubidea osatzen duten betebeharez gain, gaitutako agenteek jarraian ezartzen diren espezifikak bete beharko dituzte:

a) Egiaztatzea beren jarduera garatzen duten segurtasun industrialeko instalazioen titularrek aurreko artikuluan aipatzen den nahitaezko dokumentazioa dutela.

b) Beren jarduera garatzen duten instalazioen inguruko nahitaezko ziurtagiriak egitea. Horietan adieraziko da ikuskatzeko, kontrolatzeko edo berrikusteko jarduketara zehatzaren pertsona fisiko gaitu arduradunaren identitatea.

c) Jarduten duen instalazioetako titularrak edo erabiltzaileak informatzea ikusitako akatsei eta horiek ez zuzentzeak izan ditzakeen erantzukizunei buruz, baita aldizkako ikuskapenak egiteko

datari eta eragiten dioten aldaketa arauemaileei buruz ere.

d) Detektatutako akatsetatik pertsona, ondasun edo ingurumenarentzat arrisku larri eta berehalakoa edo kalte larria etor daitekeela ikusten denean, eragindako ondasun juridikoak babesteko behar diren zuzenketa-neurriak hartzea.

e) Azken hamar urteetan diseinatu, instalatu, mantendu eta konpontzeko egindako jarduketan zerranda duen fitxategi eguneratu bat izatea, salbu eta araudi sektorialak beste epe bat ezartzen badu.

f) Segurtasun industrialeko Administrazioaren eskura mantentzea aurreko bost urteetan diseinatu, instalatu, mantendu, konpondu, ikuskatu eta kontrolatzeko egindako jarduketei buruzko dokumentazioa, eta urtebetean mantentzea bajaran dagoenean, salbu eta araudi sektorialak beste epe batzuk ezartzen baditu.

g) Industria-arloko organo eskudunari jakinaraztea mantentze-zorroko altak eta bajak, araudi espezifikoaren arabera eska daitezkeen mantentze-kontratuen kopiak emanez.

18. artikulua. Kontrol-erakundeak

1. Dekretu honetan ezarritakoaren ondoreetarako, kontrol-erakundeak izango dira 21. artikuluan aipatzen diren ikuskatze-jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridiko titularrak.

Halaber, kontrol-erakundeei dagozkie Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 14.2. artikuluan xedatutako eginkizunak, betiere araudiaren arabera horretarako gaituta badaude.

2. Kontrol-erakundeek 11., 12. eta 13. artikuluetan aipatzen diren betebeharren eta betekizunen araubide orokorraren mende egongo dira, salbu eta 13. artikuluko i) eta j) letretan xedatutako betebeharren mende, eta, gainera, jarraian ezarritako betekizun espezifikoaren mende egongo dira:

a) Behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak eta inpartzialtasun eta independentzia izan beharko dituzte segurtasun-baldintza optimoetan egiteko beren jarduerak; horrez gain, Dekretu hau garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen direnak edo aplikatu beharreko araudi sektorialean xede berdinerako espezifikatzen direnak ere izan beharko dituzte. Betekizun hau bete dela egiaztatze-erakunde nazional batek egiaztatuko du.

b) Aseguru-kontratu bat edo bere jardueran aritzean izan dezakeen erantzukizuna estaltzeko bestelako berme baliokide bat sinatzea (egiten duten segurtasun industrialeko jarduera hasi baino lehen eta jarduera garatzen den bitartean ondoreekin mantendu beharko du), Dekretu hau garatzeko xedapenetan edo aplikatu beharreko araudi sektorialean ezartzen den zenbatekoarekin.

3. Aurreko apartatuan aipatzen den araubide orokorra osatzen duten betebeharez gain, kontrol-erakundeek jarraian xedatzen diren espezifikoak bete beharko dituzte:

a) Jakinaraztea segurtasun industrialaren arloko organo eskudunari, 15 eguneko gehieneko epean, ikuskatzean eta kontrolatzean ikusitako akatsak, salbu eta horiek oso larriak badira. Kasu horretan, jakinarazpena berehala egin behar da eta, kasu guztietan, dagokion ikuskapena amaitu eta hogeita lau ordu baino lehen.

b) Salatzea, organo eskuduneari, Dekretu honek araututako arloan arau-hauste bat dakarten gertaerak, hau da, ikuskatu eta kontrolatzeagatik ezagututako gertaerak.

c) Eragindako ondasun juridikoak babesteko behar diren zuzenketa-neurriak hartzea, istripu edo larrialdi bat izateko arrisku larriko kasuetan.

d) Organo eskudunari proposatzea, istripu edo larrialdi bat izateko arrisku larriko kasuetan, behar diren behin-behineko neurriak har ditzala.

e) Segurtasun industrialeko Administrazioaren eskura mantentzea jarduketei buruzko dokumentazio guztia, hau da, gutxienez duela hamar urtetik Dekretu honen arloan gauzaturako jarduketei buruzkoa, salbu eta araudi sektorialean bestelako epe bat ezartzen bada.

4. Alde batera utzi gabe Dekretu honetako 24.7. artikuluan ezarritakoa, kontrol-erakundeek, segurtasun industrialaren araudiak esleitzen dizkien eginkizunetan jarduten dutenean, egindako ziurtagiri, txosten eta gainerako dokumentuek segurtasun industrialeko Administrazioak edo bere agenteek egindakoen balio eta efikazia berdina dute.

5. Kontrol-erakundeek egindako ziurtagiri, txosten eta gainerako dokumentuak erreklamatu ahal izango dira arlo honetan eskumena duen organoan.

Aurreko lerrokadan aipaturako erreklamazioa tramiterako onartuko da, baldin eta dagokion kontrol-erakundearen desadostasuna adierazi bada eta hori formalizatu zenetik hamar egun igaro badira. Ez da epe hori igarotzen utzi behar, baldin eta epea amaitu aurretik kontrol-erakundeak erantzun egiten badio desadostasun horri.

Segurtasun industrialeko Administrazioan erreklamazioak aurkezteko eskubidea preskribatu egingo da kontrol-jarduketak amaitu eta hilabete batera.

Ezingo da eskatu kontrola beste kontrol-organo batek egitea aurreko apartatuan xedaturako epea igaro arte edo, segurtasun industrialeko Administrazioan erreklamazioa jartzen bada, horren ebazpena eman arte.

Atal honetan ezarritakoaren arabera hasitako prozedurak ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, erreklamazioa tramitatzeko Administrazioaren erregistroan sarrera eman zaion egunetik kontatzen hasita.

19. artikulua. Gaitutako agente ikuskatzaileak

1. Dekretu honetan ezarritakoaren ondoretarako, gaitutako agente ikuskatzaileak izango dira 21. artikuluan aipatzen diren ikuskatze-jarduerak egiten dituzten eta kontrol-erakundeak ez diren pertsona fisiko edo juridiko titularrak.

2. Gaitutako agente ikuskatzaileak kontrol-erakundearen betebeharrak eta betekizunen araubidearen mende egongo dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa gorabehera, 18.2. artikuluko a) letran xedaturako betekizuna egiaztatuko da, gaitutako agente ikuskatzaileen kasuan, horretarako bete beharreko araudi sektorialean xedatzen denaren arabera.

3. Gaitutako agente ikuskatzaileek, segurtasun industrialaren araudiak esleitzen dizkien eginkizunetan jarduten dutenean, egindako ziurtagiri, txosten eta gainerako dokumentuek kontrol-erakundeek egindakoen balio eta efikazia berdina dute. Horiek ere erreklamatu ahal izango dira, azkenekoen jarduketa dela eta jartzen den erreklamazioaren termino eta baldintza berdinetan.

3. ATALA. SEGURTASUN INDUSTRIALEKO JARDUEREN ETA INSTALAZIOEN KONTROLA

20. artikulua. Kontrola

1. Segurtasun industrialeko jarduera eta instalazioak, gehienbat, ikuskapenen, kontu-ikuskaritzaren, laginketaren, eta aldizkako ikuskapenen eta berrikuspenen bidez kontrolatuko dira.

2. Kontrolen bidez egiaztatuko da segurtasun industrialeko instalazio eta jarduerak dagozkien funtzionatu edo garatzeko segurtasun industrialaren arloko indarreko araudiak ezartzen dituen baldintza edo betekizunetara egokitzen direla.

3. Segurtasun industrialeko instalazioetan kontrolatuko dira instalazioa osatzen duten aparatu, ekipamendu, produktu, elementu eta osagaiak eta instalazio horietan jardun duten pertsonak.

4. Segurtasun industrialeko jardueretan kontrolatuko dira jarduera horien xede diren prozesu eta produktuak, eta jardueraren garapenean esku hartu duten pertsonak.

5. Kontrol-jarduketak, maiztasun, irismen eta baldintza teknikoei dagokienez, egingo dira aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritakoaren eta agintaritza eskudunak horretarako onartutako auditoria- edo kontrol-planen arabera.

21. artikulua. Ikuskapena

1. Ikuskapen bidezko segurtasun industrialeko jarduera eta instalazioen garapen eta funtzionamenduaren kontrola, artikuluko honetan eta arloko araudian jaso bezala egingo dute Industria Segurtasuneko Administrazioak kontrol erakundeek edo gaitutako ikuskatzaileek.

2. Segurtasun industrialeko Administrazioak kasu hauetan zuzenean esku hartuko du mendeko langileen bidez eta ikuskaritzako eta kontrol teknikoko lanak egingo ditu, soilik kasu hauetan:

a) Arauren batek xedatzen badu nahitaezkoa dela esku-hartze hori egitea.

b) Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapen edo funtzionamenduari erlazionatutako salaketa sendo bat badago, eta hori argitzeko dagokion ikuskapena egin behar bada.

c) Istripuren bat gertatzen denean eta segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapen edo funtzionamenduaren ondorio denean, baldin eta dagokion ikuskapena beharrezkotzat jotzen bada zer gertatu den argitzeko edo erantzukizuna norena den zehazteko.

Segurtasun industrialeko Administrazioaren mendeko langileak, artikuluko honetan arautzen den ikuskatu eta kontrolatzeko arloko eginkizunetan ari direnean, agintaritza-agenteak izango dira eta gaituta egongo dira, egoitzaren bortxaezintasunarekiko errespetua ezartzen duten mugen barnean, era librean sartzeko edozein unetan eta aurretik abisatu gabe segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioak egiten diren edo dauden tokira eta bertan egoteko ikuskapenak irauten duen denboran.

3. Atal honetan aurreikusten diren eta arloko araudiak ezartzen dituen baldintzak eta terminoak jarraituz egingo da kontrol erakundeek edo gaitutako ikuskatzaileek egindako ikuskapena.

22. artikulua. Ikuskaritza eta laginketa

1. Industria segurtasuneko jardueren eta instalazioaren funtzionamenduaren eta garapenaren kontrola Industria segurtasuneko Administrazioak egingo du ikuskaritza edo laginketaren bidez, honako irizpide hauek jarraituz:

a) Kontrol ekintza hauek aldizkakoak izango dira eta eskuduna den agintaritzak onartutako ikuskaritza eta kontrol planei jarraituz egingo dira.

b) Izaera integrala ahalko dute izan eta hauen bidez, industria segurtasuneko araudipean dauden jarduera edo instalazio guztiak kontrolpean jar daitezke, 20. Artikuluko 3. eta 4. Atalek ezartzen dutenari jarraituz.

c) Beste Administrazio eta erakunde publikoekin koordinatuz edo beraien laguntzaz egin daitezke, baita merkatua zaintzeko kanpainen barruan ere.

2. Industria Segurtasuneko Administrazioak, aldizka, ikuskaritza edo kontrol planak onartuko ditu, honako irizpideei jarraituz:

a) Kontuan hartuko dira, batez ere, gizarte-eskariak eta Industria jardueren eta instalazioen funtzionamenduaren eta garapenaren berezko istripu-tasa eta arriskugarritasuna.

b) Ikuskaritza edo kontrol planak beste Herri Administrazioen eta Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen lankidetzaz gauzatuko dira.

c) Araubide sektorialak eta, hala badagokio, kontrola jaso beharko duten instalazioak, jarduerak edo bien elementuak bereiztuz landuko dira.

d) Behin onartuta, honi buruz gardentasun arloko araudiak aurreikusten duenari jarraituz azalduko dira.

23. artikulua. Aldizkako ikuskapenak eta berrikuspenak

1. Industria segurtasuneko instalazioen funtzionamenduaren kontrola arloko araudiak ezartzen dituen pertsona fisiko edo juridikoei egingo dute.

2. Aldizkako ikuskapen eta berrikuspenak izango dira, aplikatu beharreko segurtasun industrialaren arloko araudi sektorialaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen aplikazio-eremuaren barnean sartzen diren jarduera eta instalazioei nahitaez eta ohiko eran egiten zaizkienak.

3. Jarduera eta instalazioen titularrak horiek beren bizitza baliagarrian dagokion araudi sektorialean ezarritako maiztasunarekin ikuskatu eta berrikusteko ardura du. Dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudi sektorialean xedatutakoaren arabera dagokion segurtasun industrialeko Administrazioaren mendeko ikuskatzaileak edo agente kolaboratzaileak ikuskatu eta/edo berrikusiko ditu.

4. Agente kolaboratzaileek jarduera eta instalazioak ikuskatu edo berrikusiko dituzte aplikatu beharreko araudi sektorialean ezarritako preskripzio teknikoaren arabera eta, hala dagokionean, bete beharreko dokumentazio teknikoan edo ikuskapen-eskuliburuetan horretarako espezifikatzen direnen arabera.

24. artikulua. Ikuskapen-aktak

1. Ikuskapen guztietan, gertaerak deskribatzen dituen akta bat idatziko da, eta artikulua honetan xedatutakoaren arabera egingo da.

2. Ikuskapen-aktak idatziz egingo dira, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat.

3. Akten kopia bat egingo da eta hori segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioaren titularrak bidaliko zaio edo gaitutako ordezkariari, eta, hala dagokionean, enpresa mantentzaileari, hamabost eguneko gehieneko epean, ikuskapena egin zenetik kontatzen hasita. Akats oso larriak dauden kasuan, aktaren kopia dagokion ikuskapena amaitzen den unean bidaliko da, eta, kasu guztietan, ikuskapena amaitzen denetik hogeita lau ordu pasatu baino lehen.

4. Alde batera utzita araudi sektorialean horretarako xeda daitekeena, akta bakoitzean hau jasoko da:

a) Akta sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak, horretarako gaitzen duen titulazioa adierazita, elkargo kide-datuak eta, hala dagokionean, pertsona juridikoa zeinen kontura jarduten duen. Jarduketa pertsona batek baino gehiagok egiten badute, akta jarduketak zuzentzen dituenak sinatuko du eta pertsona horrek esku hartu duten gainerako pertsonen identitatea adieraziko du.

b) Akta egin zen lekua eta eguna.

c) Kontrola gauzatzen den instalazio edo jardueraren datuak, eta jasota geldituko da, ahal denean, kontrol-jarduketa egin zaion pertsona fisiko edo juridikoaren informazio hau: izena eta abizenak edo izen soziala, nortasun agiri nazionala edo identifikazio fiskaleko zenbakia, segurtasun industrialeko jarduera, eta segurtasun industrialeko jarduera garatzen den edo segurtasun industrialeko instalazioa kokatzen den toki fisikoa.

d) Ikuskapenean jardun duen agenteari arreta eman dion pertsonaren identifikazio-datuak, elkarlanean aritzeko prest dagoenean, baita bere izaera edo ordezkaritza ere zeinen titulupean esku hartzen duen.

e) Aztertutako gai edo alderdiak eta bestelako baldintzak, esaterako, adierazitako gertaeren

ezagutza-iturrien deskribapena eta instalazioaren titularrak edo bere ordezkariak ikuskapen-bisitan zehar jarritako alegazioak edo egindako oharrak.

f) Akta sinatzen duenaren sinadura.

5. Aktan hutsak zuzentzeko eskaera egiten bada, aktan jasoko dira ikusitako akatsak eta zer epetan zuzendu behar diren, eta eskaera horri ez bazaio erantzuten izan daitezkeen administrazio-erantzukizunen zerrenda.

6. Jardun duen ikuskatzaileak egokitzen jotzen badu behin-behineko neurriak hartzea, aktan jasoko ditu bere erabakia arrazoitzeko baldintzak, neurri horien izaera eta irismena eta, hala dagokionean, aurkaratzeko interesdunak dituen tresnak.

7. Alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77.5. artikuluan ezarritakoa, ikuskapen-aktek ziurtasun-presuntzioa eta froga-balioa izango dute horietan adierazten diren gertaeren inguruan; halere, horiek batera baloratu beharko dira espedienteko froga-materialarekin batera.

25. artikulua. Berrikuspen-ziurtagiriak

1. Berrikuspen guztietan gertaerak deskribatzen dituen ziurtagiri bat egingo da.

2. Berrikuspen-ziurtagiriak idatziz egingo dira, gehienbat, baliabide elektroniko bidez.

3. Ziurtagirien kopia egingo da eta hori dagokion berrikuspena amaitzen denean segurtasun industrialeko instalazioaren titularrari edo, hala dagokionean, bere ordezkariari bidali beharko zaio.

4. Alde batera utzita araudi sektorialean horretarako xeda daitekeena, ziurtagiri bakoitzean hau jasoko da:

a) Ziurtagiria sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak, gaitzen duen bere titulazioa adierazita, elkargo kide-datuak eta, hala dagokionean, pertsona juridikoa zeinen kontura jarduten duen. Jarduketa pertsona batek baino gehiagok egiten badute, ziurtagiria jarduketak zuzentzen dituenak sinatuko du eta pertsona horrek esku hartu duten gainerako pertsonen identitatea adieraziko du.

b) Ziurtagiria egin zen lekua eta eguna.

c) Kontrol-jarduketa gauzatu zaion instalazio-datuak.

d) Aztertutako gaiak edo alderdiak eta gainerako baldintzak.

e) Ziurtagiria sinatzen duenaren sinadura.

5. Berrikuspenaren ondorioz ikusten bada akatsak daudela, horiek dagokion ziurtagirian jasoko dira. Halaber, horietan eta, hala dagokionean, eragiten zaien ondasun juridikoen osotasuna bermatzeko zuzenketa-neurriak jasoko dira.

26. artikulua. Diziiplina industrial

1. Segurtasun industrialeko administrazioak, organo eskudunen eta arrazoietan oinarritutako ebazpenaren bidez, segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioen titularrei ezarri ahal izango dizkie eska daitezkeen eta Dekretu honetan edo bete beharreko indarreko gainerako araudian ezarritako betekizun eta betebeharrak orokorrak betetzeko egin beharreko, egin behar ez diren edo jasan beharreko betebeharrak. Betebeharrak horiek ezarriko dira efikazia- eta proportzionaltasun-printzipioek araututa eta inolako kasutan ez da ordainsaririk eskatuko.

2. Aurreko apartatuko betebeharrak ezartzeko organo eskuduna lege- edo erregelamendu-

mailako arauak ezartzen duena izango da eta, horrelakorik ez badago, lurraldearen arabera industriaren arloan eskumena duen Saileko Lurralde Ordezkaritzak.

3. Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio bat gelditu edo eteteko betebeharra soilik ezarri ahal izango da azken horien funtzionamendu edo garapenetik pertsona, ondasun edo ingurumenarentzat arrisku larri eta berehalako bat etortzen denean. Gelditze edo etete horrek aipatutako jarduera edo instalazio osoari edo zati bati eragin diezaioke.

4. Aurreko apartatueta aipatzen diren betebeharrak independenteak eta bateragarriak dira Dekretu honetako IV. Kapituluan arautzen den ahalmena gauzatzean ezar daitezkeen zehapen-neurriekin.

5. Artikulu hau aplikatzean ireki daitezkeen prozeduren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da hasierako erabakiaren egunetik zenbatzen hasita.

27. artikulua. Behin-behineko neurriak

1. Behin-behineko neurriak ezarri ahal izango dira prozedura hasi ondoren, baita hasi aurretik ere hori egitea beharrezkotzat jotzen denean inplikaturako interesen babesa ziurtatzeko eta horrek errespetatuz proportzionaltasun, eraginkortasun eta kostu txikiagoaren printzipioak.

2. Prozedura hasten denean ezarri beharreko behin-behineko neurriak, ofizioz edo alderdiak eskatuta eta era arrazoituan, hartuko ditu administrazio-organo eskudunak prozedura ebazteko interesdunei aurrez entzunaldia eginda bost eguneko epe komunean.

Aurreko lerrokadan adierazitako aurretiko entzunaldia ordezkatu daiteke, epe berdinean egindako ondorengo alegazio-izapide baten bidez, ikusten bada behin-behineko neurriek, aurretiko entzunaldiaren izapidea egin arte atzeratuz gero, eraginkortasuna galduko dutela.

3. Prozedura hasi aurretik, organo eskudunak prozedura hasi edo bideratzeko, ofizioz edo alderdiak eskatuta, baita Administrazioaren mendeko ikuskatzaileak ere, era arrazoituan hartu ahal izango dituzte, atzeraezin diren urgentziatzeko kasuetan eta inplikaturako interesak behin-behinean babesteko, behar diren behin-behineko neurriak eta proportzionatuak. Neurri horiek prozedura hasteko akordioan baieztatu, aldatu edo adierazi beharko dira. Prozedura hori neurriak hartu eta hurrengo hamabost egunetan eman beharko da, salbu eta zehapen-prozedura bat bada, erkidegoan indarrean dagoen araudiak zehatzeko ahalaren arloan beste epe bat ezartzen badu.

Nolanahi ere, neurri horiek baliorik gabe geratuko dira prozedura ez bada hasten aipatutako epe horretan, edo prozedura hasteko erabakian ez bada espresuki ezer esan neurri buruz.

4. 20. artikuluko hirugarren apartatuan aipatzen diren pertsonen egindako ikuskapen-aktek behin-behineko neurriak badituzte, oinarria izango dira organo eskudunak azken horiek ezartzeko.

5. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean xedatutako baldintzetan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2005 Legearen 56. artikuluko nahi beste behin-behineko neurri hartu ahal izango dira, beharrezkotzat jotzen badira inplikaturako interesak zaintzeko.

Segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapen edo funtzionamendua aldi baterako etetea dakarren behin-behineko neurria soilik hartu ahal izango da garapen edo funtzionamendu horrek berekin badakar pertsona, ondasun edo ingurumenarentzako kalte larri edo arrisku larri bat eta berehalakoa. Aipatutako aldi bateko eteteak segurtasun industrialeko jarduera edo instalaziori erabat edo zati batean eragin diezaioke.

6. Ezin da behin-behineko neurri hartu, interesdunei kalte konpungaitza edo konponezina badakarkie edota legeek babestutako eskubideak zapaltzen baditu.

7. Behin-behineko neurriak kendu edo aldatu ahal izango dira prozedura izapidetzen den bitartean, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, baldin eta neurriak hartu zirenean kontuan hartu ezin ziren gorabeherak edota gerora sortutakoak azaltzen badira.

Betiere, neurri horiek baliorik gabe geratuko dira prozedura amaitzeko administrazio-ebazpena eraginkor bihurtzen den unean bertan.

8. Kautelazko neurriak gorabehera, egindako arau-hausteari dagozkion zehapenak ezarri egingo dira, Dekretu honetako IV. Kapituluaren ezarritakoaren arabera.

III. KAPITULUA

Segurtasun industrialeko administrazioa

1. ATALA. INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

28. artikulua. Izaera

Industria Segurtasunerako Kontseilua segurtasun industrialarekin erlazionatutako interes sozialen eta jardueren sektore ordezkagarrien aholku- eta partaidetza-organoa da.

29. artikulua. Atxikipen organikoa

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua industria arloko Sailari atxikia dago, baina ez dago bere egitura organikoan sartuta.

30. artikulua. Eginkizunak

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

- a) EAEko botere publikoek segurtasun industrialaren arloan onartutako xedapen orokorrak lantzeko proiektuei buruzko nahitaezko txostenak egitea.
- b) Jarduketa-planei buruz txostenak egitea segurtasun industrialaren arloan.
- c) Agente kolaboratzaileen jarduketa koordinatzea segurtasun industrialaren arloan.
- d) Segurtasun industrialaren arloan ikerlanak eta txostenak egin daitezela sustatzea.
- e) Segurtasun industrialeko politikaren lanketa, kontsulta eta segimenduan aholkuak ematea.
- f) Segurtasun industrialaren arloan, xedapen orokorrak esleitzen dion beste edozein.

31. artikulua. Antolaketa

Industria Segurtasunaren Kontseiluak Osoko Bilkuran eta Batzorde Berezien bidez funtzionatzen du.

32. artikulua. Osoko Bilkuraren osaera

1. Osoko Bilkura presidenteak, presidenteordeak eta idazkariak, eta hemeretzi bokalek osatzen dute.

2. Kontseiluaren presidentea izango da segurtasun industrialaren arloan eskumena duen sailburuordea. Presidenteordea segurtasun industrialaren arloan eskumena duen zuzendaria izango da. Idazkaria sailburuordeak bere sailburuordetzako funtzionarioetatik horretarako izendatzen duen funtzionarioa izango da.

3. Industria Segurtasunaren Kontseiluko Osoko Bilkurako bokalak hauek izango dira:

- a) Industria-arloan eskumena duen saileko segurtasun industrialaren eremuko arduraduna.
- b) Industria-arloan eskumena duen Saileko segurtasun industrialeko administrazio-eremuko arduraduna.
- c) Energiaren arloan eskumena duen Saileko energiaren eremuko arduraduna.
- d) EAEko Ingeniari Industrialen Kontseiluko ordezkari bat.
- e) EAEko Perituen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Kontseiluaren ordezkari bat.
- f) Enpresaburuen elkarteetako hiru ordezkari.
- g) Konfekoop Euskadiko Kooperatiboen Konfederazioaren ordezkari bat.
- h) Kontrol-erakundearen ordezkari bat.
- i) Kontsumitzaileen federazioen hiru ordezkari.
- j) Euskadiko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberako Eusko Ganberako ordezkari bat.
- k) Energiaren enpresa banatzaile edo merkaturatzaileen hiru ordezkari, sektore hauetako bakoitzeko bana: gasa, elektrizitatea eta petrolio-produktuak.
- l) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen ordezkari bat.
- m) Ingurumenaren arloan eskumena duen Saileko ordezkari bat.

4. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko karguarengatik kide direnek, automatikoki utziko diote kide izateari kide izendatuak izateko kontuan izandako ezaugarri hori galtzen dutenean.

5. Gainerako kideak Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren presidenteak izendatuko ditu dagokion erakundeak proposatuta lau urterako, epe berdinarekin luza daitekeena.

6. Kideek beren kargua utziko dute heriotzagatik, dimititzeagatik, ezgaitasunagatik edo izendatuak izateko ezaugarri hori galtzeagatik. Kontseiluko kide batek kargua uzteagatik sortzen diren plaza hutsak presidenteak horretarako izendatutako ordezkariak bete ditzakete agintaldiaren gainerako epe-tartean edo ondorengoa izendatu arte.

7. Kontseiluko kideak ordeztu ahal izango dituzte deitzen diren bilkuretan horretarako izendatzen diren pertsonak.

8. Kontseiluko idazkariak ahotsa izango du baina ez du boto-eskubiderik izango Kontseiluak hartzen dituen akordioetan.

9. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren presidenteak baimendu ahal izango du bilkuretan, edo haien zati batzuetan, eztabaidatzekoak diren gaietan adituak egotea. Aditu horiek, bakarrik eurei dagokien gai edo gaietan izango dute hitza eta ez dute boto eskubiderik izango.

33. artikulua. Batzorde Bereziak

1. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren barruan izaera teknikoa duten Batzorde Bereziak eratu ahal izango dira. Emango zaizkien egitekoen arabera, Osoko Bilkurak baimendu eta izendatuko ditu lankidetzak eta babes iraunkor edo puntualerako.

Osoko Bilkurari laguntza emango diote Batzorde Berezi horiek, zientzia, teknologia, ikerketa eta segurtasun industrialari lotutako alde espezifikokoak landuko dituzte. Horretarako, gai jakinei buruzko lanak, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo dituzte, Osoko Bilkuran

eztabaidatzeko eta onartzeko.

2. Batzorde Bereziak Euskal Administrazio Publikoaren kideek eta Batzordeak eratzean egokiagotzat jotzen diren sektore industrialeko profesionalak integra ditzakete.

34. artikulua. Bilerak

1. Industria Segurtasunerako Kontseiluaren Osoko Bilkurak ohiko bilkura egingo du urtean behin.
2. Industria Segurtasunerako Kontseiluaren Osoko Bilkurak aparteko bilkura egin dezake presidentek edo kideen heren batek idatziz eskatuta.

35. artikulua. Bileren deialdiak

1. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren deialdiak presidentearen aginduz egingo dira, gutxienez, zazpi egun lehenago. Deialdian zehaztuta jarriko da gai-zerrenda eta bilkura zein egunetan, non eta zein ordutan egingo den.

2. Gutxienerako aurrerapenari buruzko betekizunetik bereiziko dira deialdiaren aginduan urgente gisa definitzen diren bilkurak.

Bilkura horiek urgentziazkoak direla, gai-zerrendako lehenengo puntu gisa adieraziko dena, organoko kideen gehiengoak berretsi beharko du horiek egin ahal izateko.

3. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko edozein kidek proposa diezaioke presidenteari gai-zerrendan gai bat sartzeko, betiere, hiru eguneko aurrerapenarekin egiten bada, gutxienez, eta proposamenarekin batera hori justifikatzeko txosten labur bat aurkezten bada.

36. artikulua. Eratzea

1. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua baliozko eran eratuko da, lehen deialdian agertzen badira kideen erdia gehi bat.

2. Quorum nahikorik ez badago, bigarren deialdian eratu ahal izango da, lehenengo deialditik hogeita hamar minutura, baina, kasu horretan, nahikoa izango da kideen herena bertan egotea.

3. Dena dela, bilkura baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da presidentea eta idazkaria edo horien ordezkariak bertan egotea.

37. artikulua. Erabakiak hartzea

1. Erabakiak baliozkoak izateko, bertaratutako gehienen aldeko botoa behar da, eta berdinketak presidentearen kalitatezko botoarekin ebatziko dira.

2. Bozkatzeko sistemari dagokionez, botoa zuzenekoa, pertsonala eta ordezkazina izango da, eta botoaren sekretutasuna bermatuko da edozein kidek presidenteari horrela egiteko eskatuz gero.

3. Osoko Bilkuraren erabakiak aktan jaso beharko dira. Akta hori egingo da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. artikuluan ezarritako eduki eta prozeduren arabera.

38. artikulua. Barne-erregelamendua

Industria segurtasunari buruzko Dekretuaren Zirriborroa, 1 B.

Industria Segurtasunerako Kontseiluaren Osoko Bilkurak ezar dezake, Dekretu honen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen esparruan, bere barne-erregelamendua.

39. artikulua. Kideen ordainsariak

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko kidea izateagatik ez da ordainsaririk jasoko, baina Kontseilu horretako kideek eskubidea izango dute gastu eta dietak ordainduak izateko, zerbitzuagatiko kalte-ordainei eta gainontzeko arau osagarri eta garapenari buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, edo hori ordeztzen duen arauak, ezarritako baldintzetan.

2. ATALA. SEGURTASUN INDUSTRIALEKO INSTALAZIOEN ERREGISTROA

40. artikulua. Izaera eta ezaugarriak

Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroa sortuko da. Erregistro administratiboa izango da, eta elektronikoa, publikoa eta bakarra Euskal Autonomia Erkidego osorako.

41. artikulua. Atxikipen organikoa

1. Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroa industriaren arloan eskumena duen Sailari atxikita egongo da.
2. Industria-administrazioaren arloan eskumena duen administrazio-organoaren titularra izango da segurtasun industrialeko instalazioen erregistroaren arduraduna.
3. Industria-arloan eskumena duen Sailak Lurralde Historikoetan dituen Lurralde Ordezkaritzak izango dira segurtasun industrialeko instalazioen erregistroaren organo arduradunak.

42. artikulua. Helburuak

Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroak helburu hauek ditu:

- a) Integratzea segurtasun industrialeko instalazioei buruzko informazioa, hau da, segurtasun industrialeko administrazioari esleitutako eskumenak era efikaz eta efizientean gauzatzeko informazioa.
- b) Segurtasun industrialari buruzko informazio-tresna bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoan, Administrazio Publikoen, herritarren eta enpresa-sektorearen zerbitzura.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Erakundea maila operatiboan eratzten duten erakundeei behar diren datuak ematea Estatistiken Euskal Planetan eta Urteko Estatistika Programetan zehaztutako segurtasun industrialaren arloko eragiketa estatistikoak egiteko.

43. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Lurraldearen ikuspuntutik, segurtasun industrialeko instalazioen erregistroak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean dauden segurtasun industrialeko instalazioen pertsona juridiko fisiko eta juridiko titularren datuak izango ditu.
2. Ikuspuntu materialetik, segurtasun industrialeko instalazioen erregistroak Dekretu honen aplikazio-eremuan dauden segurtasun industrialeko instalazioen pertsona juridiko fisiko edo juridiko titularren datuak izango ditu.

44. artikulua. Inskripzioa

1. Industria Segurtasuneko instalazioen erregistroan eginiko inskripzioak ez dira eratzailak.
2. Inskripzioa egiteko eskumena izango duten agintariak izango dira, beren eskumenerako lurralde-eremuan, industriaren arloan eskumena duen Saileko Lurralde Ordezkaritzak.
3. Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroan ofizioz inskribatuko da datu hauetatik abiatuta: segurtasun industrialeko administrazioko organo eskudunek emandako ekintzetako datuak, erantzukizunpeko adierazpenetako, jakinarazpenetako, baimen-eskaeretako eta interesdunek segurtasun industrialeko administrazioari bidaltzen dizkioten beste edozein dokumentatutako datuak, eta interesdunek administrazioari jakinarazten dioten informazioa osatzen duten datuak.

Halaber, inskripzioak egingo dira emandako datuetatik, elkarreragingarritasuna bermatzen duten baliabide elektronikoen bidez, Industria erregistroaren bidez eta, hala dagokionean, EAeko Administrazioaren beste erregistro batzuen bidez, baita bestelako Administrazio Publiko edo Erakunde Publikoek eman dezaketen segurtasun industrialeko jarduerekin erlazionatutako datuen bidez ere.

4. Inskripzioa baliabide elektronikoen bidez egingo da, betiere bizkortasunaren, arintasun administratiboaren eta efikaziaren printzipioei jarraiki.
5. Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroa kudeatzeko arloko organo eskudunek erregistroko datuak une oro eguneratzen direla ziurtatuko dute.

45. atala. Edukia

Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroek, aurreko artikuluko bigarren apartatuan aipatzen den datu-basean oinarrituta eginda, informazio hau izango dute:

a) Oinarrizko datuak:

1. Segurtasun industrialeko instalazioen pertsona fisiko edo juridiko titularrei buruzko oinarrizko datuak:

- Izena eta abizenak edo izendapena edo izen soziala, dagokionaren arabera.
- Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Autonomia Erkidegoak esleitutako identifikazio-zenbakia.
- Egoitza (lurralde historikoa).

2. Segurtasun industrialeko instalazioei buruzko oinarrizko datuak:

- Autonomia Erkidegoak esleitutako identifikazio-zenbakia.
- Kokapena (lurralde historikoa).

b) Datu osagarriak:

- Interesdunek aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpen, jakinarazpen eta, hala dagokionean, baimen-eskaerei buruzko datuak. Horien artean egongo dira zer egunetan aurkeztu ziren eta zer agintaritzari aurkeztu zitzaizkion.
- Hala dagokionean, segurtasun industrialeko instalazioak lotura duten segurtasun industrialeko jarduera edo jardueri buruzko datuak.

– Hala dagokionean, baimen-emateen ebazpenei buruzko datuak. Horien artean egongo dira zer egunetan eman diren ebazpenak eta zer agintaritzak eman dituen.

– Gauzatutako kontrol-jarduketei buruzko datuak, hau da, egindako ikuskapen- edo berrikuspen-aktetan jasotakoak eta kontrol-jarduketa horiekin erlazionatutako administrazio-prozeduretan emandako ekintzetakoak.

– Segurtasun industrialeko instalazioen titularrek sinatu behar dituzten erantzukizun zibil profesionalaren aseguruari buruzko datuak.

46. artikulua. Identifikazio-zenbakiak esleitzea

Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroan inskribatzeak identifikazio-zenbaki bat esleitzea dakar.

47. artikulua. Erregistroa sartzeko eta datuak zabaltzeko arauak

1. Alde batera utzi gabe hurrengo apartatuetan ezarritakoa, segurtasun industrialeko instalazioen erregistroko informazio guztia publikoa izango da, salbu eta armak eta lehegailuak fabrikatzeko jarduerak eta defentsarako interesgarritzat jotzen diren jarduerak egiten dituzten segurtasun industrialeko enpresa, erakunde eta instalazioei buruzkoa bada.

2. Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroko informazioa osatzen duten datu pertsonalak datu pertsonalen arloan indarrean dagoen araudiaren mende egongo dira.

3. 45. artikuluko b) letran aipatzen diren datuekiko datu osagarriak jabetza industrialaren araubidearen mende egongo dira.

Datu osagarrietarako sarbiderako baimena emango du segurtasun industrialeko instalazioen erregistroko arduradunak. Bertan egiaztatuko da interes legitimo indibidual edo kolektibo baten titulartasuna eta zehatz-mehatz zehaztuko da zer informaziorako nahi den sarbidea. Hala eskaeraren aurkezpena nola segurtasun industrialeko instalazioen erregistroarako sarbidea baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

4. Aurreko apartatuetan jasotako segurtasun industrialeko erregistroko datuetarako sarbidea eta publikotasunaren mugak ez dira aplikatuko estatistika-sekretuak bermatutako estatistika-informazioarekiko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren apirilaren 23ko 4/1986 Legearen arabera.

5. Enpresa-sektorearentzat eta, bereziki, herritarrentzat interesekoak diren segurtasun industrialeko instalazioen erregistroko datuak argitaratuko ditu aldiro industria-arloan eskumena duen sailak, segurtasun industrialeko jardueraren, haren lurralde-banaketaren eta bilakaeraren berri emateko.

48. artikulua. Elkarreragingarritasuna industria-erregistroarekin

Segurtasun industrialeko instalazioen erregistroak eta industria-erregistroak osotara elkarreragingarriak izan behar dute, hartara berma dadin haien bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa, eta orobat erregistro-idazpenen eta horietan dauden datuak modu telematikoan bidaltzeko aukera emanez.

IV. KAPITULUA

Zehatzeko ahala

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

49. artikulua. Eskumenari buruzko arauak arloaren arabera

1. Industriaren arloan eskumena duen Saileko organoei dagokie Dekretu honetan araututako zehatzeko ahala baliatzeko legez edo erregelamenduz zehaztea Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 4/2008 Legean ezarritakoaren arabera.

2. Dekretu honek araututako arloan arau-hauste bat diren ekintzak eta omisioak eta, era berean, segurtasunaren eta laneko osasunaren arloan arau-hauste bat badira, arlo horietako araudian xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

50. artikulua. Erantzuleak

1. Kapitulu honetan xedatutako arau-hausteak egitateengatik soilik zehatu ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legean ezarritakoaren arabera, dolo edo erru gisa horien erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren pertsona juridikoen erantzukizuna zehatzeko ahalaren arloan erkidegoan indarrean dagoen araudiak ondore horietarako ezartzen duenaren arabera zehaztuko da.

3. Dekretu honetan ezarritako betebeharrak edo betekizun bat betetzea hainbat pertsonari batera dagokienean, modu solidarioan erantzungo diete egindako arau-hauste eta ezarritako zehapenei. Hala ere, zehapena diruzkoa denean, ebazpenean indibidualizatu egingo da, posible denean, erantzule bakoitzak izan duen parte-hartzearen graduaren arabera.

4. Arau-hauste bat egitearen ondoriozko administrazio-erantzukizunak bateragarriak izango dira erantzuleei horiek aldatutako egoera lehengoratzeko eskatzearekin, bai eta sortutako kalte-galeren ordainketarekin ere eta dagokion zehazpen-prozedura ebazteko dagokion organoak zehaztu eta eskatuko baitu.

51. artikulua. Egiletasuna

1. Kapitulu honetan xedatutako arau-hausteak ezartzeko egitateen subjektu erantzuleak dira horien pertsona fisiko edo juridiko egileak.

2. Egileak izango dira tipifikatutako egitatea beraiek bakarrik, beste batzuekin batera edo tresna gisa erabiltzen duten beste baten bidez egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, baita egitatea gauzatzeko beharrezko eran kooperatzen dutenak eta arau-haustea beste batek egitea galarazteko betebeharrak betetzen ez dutenak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legean xedatutako baldintzetan.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondoretarako, Kapitulu honetan xedatutako arau-hausteak ezartzeko egintzen pertsona fisiko edo juridiko egileak zehaztuko dira, kontuan izanda egitate horiek duten nagusitasuna, bete daitezela eska daitezkeen betekizun eta betebeharren araudia, eta kontratu, lege edo erregelamendu bidez gaituta dauden esku-hartze zehatzen irismen eta izaera.

2. ATALA. ARAU-HAUSTEAK

52. artikulua. Xedapen orokorrak

Dekretu honetan araututako gaietan arau-hauste administratiboak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako, azaroaren 12ko, 8/2004 LEGEAn horrela tipifikatu eta zehatuak dauden doluzko edo erruzko ekintzak edo ez-egiteak.

53. artikulua. Arau-haustek preskribatzea

1. Arau-hauste oso astunak bost urteren buruan geratuko dira indarrik gabe, astunak hiru urteren buruan eta arinak urtebete igaro ostean.

2. Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokaera arau-hauslea amaitu zen unetik hasiko da kontatzen.

3. ATALA. ZEHAPENAK.

54. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Zehapenak zehatzeko ahala arautzen duten legeek ezarritako esparruan ezarritako dira, hurrengo artikuluan zehapenak zehatzeko xedatutako irizpideei jarraituz. Ondore horietarako, arau-haustek zehatu egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legeko 35. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

2. Arau-haustearen ondorioz, ezar daitekeen diruzko zehapenaren gehieneko zenbatekoa baino etekin ekonomiko handiago lortzen denean, ezartzen den zehapenaren zenbatekoa lortutako etekinaren bikoitza ere izan daiteke.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legean tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak bete beharreko beste edozein arautan ere tipifikatuta badaude, zehapenik handiena jartzen duen arauaren arabera kalifikatuko eta zehatuko dira.

55. artikulua. Zehapenak zehaztea

Kasuan kasuko zehapena zenbatekoa izango den zehatzeko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriaren azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 36. artikuluan xedatutako inguruabarrak hartuko dira kontuan.

56. artikulua. Diruzkoak ez diren zehapenak

1. Arau-hauste oso astun edo astun bat denean, zehapen-ebazpenean erantzuleei debekatu ahal izango zaie Administrazio Publikoen dirulaguntzetarako sarbidea eta debekatu ahal izango zaie kontratuak egin ahal izatea bi urtez arau-hauste astunen kasuan eta bost urte artekoa arau-hauste oso astunen kasuan.

2. Arau-hauste oso astunak eginez gero, dagokion diruzko zehapenaz gain, segurtasun industrialeko jarduera edo instalazioa aldi batean eten ahal izango da, emandako baimen-ebazpenaren ondoreak baliogabetu edo eten ahal izango dira, edo merkatuan jardutea debekatu ahal izango da.

3. Dekretu honetako 10.5. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe eta ezar daitezkeen zehapenik gabeko neurriak kontuan izan gabe, artikuluko honen bigarren apartatuan jasotako zehapenen bat hartu ahal izango da soilik, baldin eta, aurreko artikuluko a), b), c), d), e), f) eta g) letretan aipatutako gutxienez hiru kategorietako baten batekoa izanda, arau-hausleen erantzukizuna larriagotzen badute. Kasu guztietan, zehapen horiek ezingo dira hiru urtetik gorako epe batekin ezarri.

57. artikulua. Zehapenak preskribatzea

1. Arau-hauste oso astunak egiteagatik ezarritako zehapenek bost urtera preskribatuko dute; arau-hauste astunak egiteagatik ezarritako zehapenek hiru urtera preskribatuko dute; eta arau-

hauste arinak egiteagatik ezarritako zehapenek urtebetera preskribatuko dute.

2. Zehapenak preskribatzeko epea zenbatuko da, erkidegoko zehapen-arloko araudiak horretarako ezarritakoaren arabera.

58. artikulua. Zehapenak argitaratzea

1. Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenak argitaratzeko prozedura ofizioz hasiko da ebazpen-egintzako proposamenaren bidez. Proposamen horretan, baita ebazteko eskumena duen organoaren ebazpenean ere, jaso beharko da zehapen hori argitaratu egingo dela artikuluhonetan xedatutako eran.

2. Zehapena argitaratzeko ez dira hiru hilabetetik gora pasatuko ebazpen-egintza irmo bihurtzen den egunetik kontatzen hasita.

3. Aldizkariaren bidez argitaratzeko moduz gain, ebazteko eskumena duen organoak publiko egiteko beste baliabide batzuk erabili ahal izango ditu, betiere erabilera horrek interesdunen edo prozeduratik kanpoko pertsonen eskubide eta interes legitimoak errespetatzen baditu.

4. Organo eskudunak artikuluhonetan aipatzen diren iragarkietako datuak kontsulta publikoko erregistro batean sartuko ditu sailburu eskudunaren aginduaren bidez.

Erregistro horren kontsultak ez du gaituko datuen ondorengo tratamendurako edo horiek fitxategi batean sartzeko datu pertsonalak babesteko arloko araudian xedatutako ondoretarako.

5. Argitaratutako zehapen-ebazpenei dagozkien datuak ezereztu egingo dira, ofizioz edo alderdiak eskatuta, zehapenei dagokien preskripzio-eparean aldi baliokidea pasatu ondoren, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4. ATALA. ZEHAPEN-PROZEDURA

59. artikulua. Araubide juridikoa

Kapitulu honetako manuen arabera hasitako zehapen-prozedurak, bertako xedapenez gain, zehatzeko ahalaren arloan erkidegoan indarrean dagoen araudiak arautuko ditu.

60. atala. Motak

Kapitulu honetan araututako zehapen-prozedurak era arruntean edo sinplifikatuan izapidetu ahal izango dira.

61. artikulua. Hasiera

1. Zehapen-prozedurak beti ofizioz hasiko dira legez edo erregelamenduz zehazten den organo eskudunaren akordio bidez, Dekretu honetako 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoaren arabera, hala norberaren ekimenez nola goragoko agindu bidez, bestelako organoen eskaera arrazoitu bidez edo salaketa bidez.

2. Hasiera-akordioak, zeina zehatzeko ahalaren arloan erkidegoan indarrean dagoen araudiak horretarako ezartzen duenera egokitu beharko baita, artikuluhonetako laugarren apartatuan xedatutako aukera berariaz aipatu beharko du, baita hurrengo artikuluko bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera ebatziko dela prozedura ere.

3. Hasiera-akordioa interesdunei jakinarazi behar zaie.

4. Prozeduraren hasiera-akordioa ebazpen-proposamentzat jo ahal izango da, bertan ezartzen den epean ez badira alegazioak egiten eta betiere egotzitako erantzukizunaren inguruko erabaki zehatza badu.

62. artikulua. Amaiera

1. Kapitulu honen arabera hasitako eta era arruntean izapidetutako zehapen-prozeduren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Horiek dagokion hasiera-akordioa eman zen egunetik hasiko dira kontatzen.

2. Zehapena, soilik, diruzko betebeharra denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak autonomi erkidego zehapen araubideak eta, hau egongo ez balitz estatukoak jasotako murrizketak aplikatuko ditu prozedura ixten delako honelako kasuetan; ustezko arau-hauslea den pertsonak bere erantzukizuna onartzen duenean edo proposatutako zehapenaren borondatez ordaintzen duenean. Xedapen orokor baten bidez, kasu hauetarako aurreikusitako murrizketaren ehunekoa alda daiteke.

63. artikulua. Prozeduren aldiberekotasuna

Zehapen-prozeduraren ebazpena ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea ofizioz etengo da, jurisdikzio penalean xede berdina duen prozedura bat dagoela seguru jakiten denean. Etete hori interesdunari edo interesdunei jakinarazi beharko zaie.

64. artikulua. Behin-behineko neurriak

Kapitulu honen arabera hasitako zehapen-prozeduren esparruan ezarritako behin-behineko neurriak egokitu egingo dira Dekretu honen 27. artikuluan ezarritakora eta zehatzeko ahalaren arloan erkidegoan indarrean dagoen araudian ezarritakora.

65. artikulua. Izapidetze sinplifikatua

1. Zehapen-prozedurak era sinplifikatuan izapidetu ahal izango dira, behar besteko judizio-elementuak daudenean arau-haustea arin gisa kalifikatzeko.

2. Izapide sinplifikatuaren akordioari interesdunak ezingo dio aurka egin.

3. Izapidetze arrunterako denbora gutxiago geratzen ez bada behintzat, modu sinplifikatuan izapidetutako zehapen-prozedurak hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko dira, prozeduraren izapidetze sinplifikaturako erabakia interesdunari jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatuta, eta izapide hauek egingo dira:

a) Prozedura ofizioz hastea.

b) Behin-behineko neurriak hartzea eta, hala dagokionean, entzunaldi-izapidea bost eguneko epean neurri horiek hartu aurretik.

c) Prozeduraren hasierari bost eguneko epean aurkeztutako alegazioak.

d) Entzunaldi-izapidea hamar eguneko epean ebazpena eman aurretik, alde batera utzi gabe 61. artikuluan laugarren apartatuan ezarritakoa.

e) Ebazpena, hasiera-akordioaren jakinarazpenetik gutxienez hamar egun pasata eman beharko dena.

4. Aurreko apartatuan xedatu gabeko izapideren bat egitea eskatzen duten prozedurak modu arruntean izapidetu beharko dira.

V. KAPITULUA

Nahitaezko betearazpena

1. ATALA. HERTSAPEN-ISUNAK

66. artikulua. Xedapen orokorrak

Industriaren arloko organo eskudunak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 103. artikulua lehengo apartatua jasotako kasuetan, hertsapen-isunak ezarri ahal izango ditu interesdunak behartzeko gauzatu beharreko egintzan ezarritakoa betetzera.

67. artikulua. Organo eskuduna

Hertsapen-isunak ezartzeko organo eskudunak zehapen arinak ezartzeko eskumena duena izango da, salbu eta une bakoitzean indarrean dagoen industriaren arloan eskumena duen Sailaren egitura organikoaren Dekretuak beste bat zehazten badu.

68. artikulua. Hertsapen-isunak ezartzeko arauak

1. Hertsapen-isun bidezko ebazpen bat nahitaez gauzatuko da, beti errespetatuz profesionaltasun-printzipioa. Betearazteko bitarteko bat baino gehiago onargarri denean, askatasun indibiduala gutxien murrizten duena aukeratuko da.

2. Hertsapen-isunak ezarri ahal izango dira soilik indar betearazlea duten egintzak gauzatzean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 103. artikuluan xedatutako edozein kasu gauzatzean.

3. Hertsapen-isunak era jarraitu eta errepikatuan ezarri ahal izango dira agindutakoa betetzeko behar den denbora kontuan hartuta, zehaztuko diren denbora-tarteen arabera.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondoretarako, hertsapen-isunak hilabete bateko edo hortik gorako maiztasunarekin ezarriko dira eta errepikatu egingo dira agindutakoa bete arte.

4. Hertsapen-isunen zenbatekoak ez du sei mila euroko zenbatekoa gaindituko.

5. Isunen zenbatekoa zehaztuko da proportzionaltasun- eta ekitate-irizpideen arabera, eta kontuan hartuta haiek bideratzeko egintzan ezarritakoa betetzeko eragina izan dezaketen alderdiak.

Hertsapen-isunei ezarriko zaien zenbatekoa hertsapen-isun horiek jarraipena ematen dioten isunak ezarriko du.

6. Hertsapen-isunak ezar litezkeen zehapenekiko independenteak izango dira, eta horiekiko bateragarriak.

69. artikulua. Hertsapen-isunak ezartzeko prozedura

1. Hertsapen-isunak ezartzeko prozedura hasi baino lehen, prozedura hasteko organo eskudunak interesdunari ohartaraziko dio, ebatzitakoa ez bada betetzen horretarako ezarritako epean, nahitaez gauzatu ahal izango dela hori baliabide horren bidez, atal honetan xedatutako kasuetan eta mugekin.

Aurreko lerrokadan aipatutako epea ezarriko da, egintzak agintzen duena betetzeko behar den

denbora kontuan hartuta, eta ezingo izan hamar egunetik beherakoa.

2. Hertsapen-isunak ezartzeko prozedura organo eskudunaren akordio bidez hasiko da, eta, bertan, prozedura egiten zaion egintzako edukiaren adierazpenak agertu beharko du.

3. Hertsapen-isunak ezartzeko prozeduren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, hasiera-akordioaren egunetik kontatuko direnak.

4. Gauzatzen den egintzan ezarritakoa ebazpenaren aurreko edozein unetan betetzeak zehaztuko du jarduketak artxibatu behar diren.

2. ATALA. BETEARAZPEN SUBSIDIARIOA

70. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Industriaren arloan eskumena duen organoak berak edo hirugarrenen bidez administrazio-egintzak gauzatu ahal izango ditu, baldin eta ebazpen horiek xedapen-edukia obligatutakoaz bestelako pertsona batek egin badezake.

2. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, betearazpen subsidiarioen bidez gauzatzen den egintzaren edukian agertuko beharko du dagokion ohartarazpenak. Bertan ezarriko da, horretarako ezarritako epean ez bada ebatzitakoa betetzen, hori nahitaez gauzatu dela baliabide horren bidez, Kapitulu honetan xedatutako kasuetan eta mugekin.

Aurreko lerrokadan aipatutako epea ezarriko da, egintzak agintzen duena betetzeko behar den denbora kontuan hartuta, eta ezingo izan hamar egunetik beherakoa.

3. Egoerak irauten duelako pertsonen osasun edo ingurumenarentzat berehalako arrisku bat etor badaiteke, egintza nahitaez gauza daiteke baliabide honen bidez, aurreko lerrokadan aipatutako aurretiazko ohartarazpena gauzatu gabe.

71. artikulua. Organo eskuduna

Administrazio-ebazpenak berak gauzatzeko edo hirugarrenei enkargatzeko organo eskuduna zehapen arinak ezartzeko eskumena duena izango da, salbu eta une bakoitzean indarrean dagoen industriaren arloan eskumena duen Sailaren egitura organikoaren Dekretuak beste bat zehazten badu.

72. artikulua. Betearazpen subsidiarioarako arauak

1. Egintzaren betearazpen subsidiarioa obligatuaren kontura egingo da, eta Administrazio Publikoaren Administrazio Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 101. artikulua araberako, gastu, kalte eta galeren zenbatekoa eskatuko da.

Behin-behineko eran likidatu ahal izango da aurreko apartatuko zenbatekoa eta betearazpena baino lehen egin ahal izango da, behin betiko likidazioaren zain.

2. Obligatuaren etxebizitzan sartu behar izango balitz, organo eskudunak haren baimena lortu behar du, edo, horrelakorik ezean, epailearen baimena.

Lehenengo xedapen gehigarria. Dagozkien araubideak jarraituz egin ez den funtzionamenduan dauden instalazioen abiaraztea

1. Dekretu hau indarrean sartu aurretik abiarazteari buruzko betekizunak bete gabe abiarazitako industria segurtasuneko instalazioen jabeek, ziurtatu beharko dute horrelako instalazioek araudi

sektorialak ezartzen dituen betekizun eta baldintza teknikoak betetzen dituztela aipaturiko araubideetan aurreikusten diren baliabide eta baldintzetan.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusten den ziurtatzea ezinezkoa den kasuetan, instalazio horien titularrek Administrazioari eska dakiokete ziurtatzearen aitortzea, dagokien araubide sektorialak aurreikusten dituen betekizun eta baldintza teknikoaren baliokideak diren beste mekanismo batzuk erabilita.

3. Xedapen orokor baten bidez, aipaturiko aitortzeari buruzko prozedura ezarriko da. Horretarako, xedapen horretan, aurreikusiko dira, beste batzuen artean, prozedurara iristeko gertatu behar diren kasuak eta Dekretu honetan eta dagozkien araubideetan aurreikusitako eskubide, eskakizun eta betebeharren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak.

4. Xedapen gehigarri honek ezarritakoaren arabera eginiko eskakizunen ebazpenak arrazoituak izan beharko dira. Haien eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, izapidetzeko eskumena duen Administrazioaren erregistroan eskakizuna sartzen den egunetik hasita.

5. Xedapen gehigarri honek aurreikusten dituen kasuetan emandako betekizun eta baldintza teknikoaren ziurtatzearen aitortzak ez ditu baztertzen abiarazteari buruzko betekizunak ez betetzearen eta honekin lotuta dauden edozein beste jokaeraren ondorioz gerta daitezkeen erantzukizun penalak, zibilak edo Administrazioak.

Bigarren Xedapen Gehigarria. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak

1. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak, Dekretu honetan ezarritakoaren arabera, segurtasun industrialeko instalazioen titularrak izan ahalko dute, baldin eta instalazio horiek ez badute loturarik segurtasun industrialeko jardura batekin.

2. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak interesdunak izan daitezke Dekretu honetan ezarritakoaren arabera gauzatzen diren prozeduretan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak ordezkari baten bidez erlazioatuko dira segurtasun industrialeko Administrazioarekin eta baliabide elektronikoak erabiliko dituzte harekin erlazionatzeko.

4. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak gaitutako ordezkariaren bidez jardun ahal izango dute Administrazioaren aurrean, Dekretu honen 6. artikulua ezarritako baldintzetan.

5. Legeak jarduteko gaitasuna aitortzen dienean, nortasun juridikorik gabeko arau-hauste gisa tipifikatutako egitateen egile eta erantzuleak izan daitezke, azaroaren 12ko, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako 8/2004 LEGEAn eta zehapen-arloan erkidegoko araudiak horretarako ezartzen duenaren arabera.

Hirugarren xedapen gehigarria. Energia hornidurako kasu bereziak

1. Beren berezitasunagatik, aldi baterakoak diren obrentzako edo ekitaldietarako hornidura elektrikoa lortzeko, araubidez ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da enpresa banatzailean.

Aldi baterako hornidura elektrikoaren iraupenak ezin izango du gainditu dagokion administrazio-lizentzian edo baimenean obrarako edo ekitaldirako finkatutako iraupena, ezta horretarako emandako luzapenen iraupena.

2.- Industria segurtasuneko instalazioetan probak egiteko energia-hornidura lortzeko, energia instalazioa dagokion araudian ezartzen dena egokitzen dela egiaztatzen duen egiaztagiriko teknikoak enpresa banatzailean edo hornitzailean aurkeztu beharko da. Ziurtagiri hori araubide sektorialak gaitutako eragile kolaboratzaile batek emango du.

Probetarako behin behineko energia hornidurak, proba horiek egiteko behar den denbora bakarrik iraun beharko du. Ezin izango da 30 egunetik gorakoa izan inolaz ere, eta horiek igarotakoan, enpresa banatzaileak edo hornitzaileak eten egin beharko du horniketa. Arrazoitutako ebazpen baten bidez, luzapena baimendu ahal izango da, eskakizuna egiterakoan azaldutako salbuespeneko inguruabarrak daudela ziurtatzen denean.

Laugarren Xedapen Gehigarria. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko kideak.

Dekretu hau indarrean jartzen denean, Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko kideek dagozkien karguetan jarraituko dute kargua utzi arte 32. artikuluan xedatutako arrazoen arabera.

Xedapen Iragankor Bakarra. Dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak.

Dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurek hasi ziren egunean indarrean zegoen arautegia bete beharko dute.

Xedapen Indargabetzaile Bakarra

1. Segurtasun industrialaren arloan indargabetuta geratu dira Dekretu honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo beheragoko arau guztiak, eta bereziki:

- a) 208/2008 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluari buruzkoa.
- b) 229/2012 Dekretua, urriaren 30ekoa, industria-segurtasuneko instalazioak abian jartzeko prozedura sinplifikatzen duena.
- c) 29/2015 Dekretuaren, martxoaren 17koaren, industria-jarduerak hasteko erregimenari eta Industria Erregistroari buruzkoaren II. eta IV. Kapituluak.

Azken Xedapenetako Lehenengoa. Aldatzea 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzeko dena.

5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzeko dena, honela idatzita geratzen da:

Bat. 11. artikulua 3. apartatua honela idatzita geratzen da:

«3. Segurtasun industrialeko Administrazioaren organo eskudunak ofizioz aldi baterako eten ahal izango du, kontrol-erakundeak ikusitako alderdietan oinarrituta, instalazioen funtzionamendua eta behar diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ukitutako interesak babesteko».

Bi. 12. artikulua lehenengo apartatua honela idatzita geratzen da:

«1.- Instalazioen titularrek arduratu behar dute akatsak konpontzeaz, eta baimendutako enpresa bat kontratatu behar dute horretarako. Akatsak ez badira zuzentzen, diziplina-prozedura hasi ahal izango da edo dagokion zehapen-prozedura hasi ahal izango da».

Azken Xedapenetako Bigarrena. Aldatzea 5/2018 Dekretua, urtarrilaren 16koa, industria-segurtasunari buruzko araudia bete behar duten instalazio eta ekipoak aldizka ikuskatzeko kudeaketa-prozedurari buruzkoa.

5/2018 Dekretua, urtarrilaren 16koa, industria-segurtasunari buruzko araudia bete behar duten instalazio eta ekipoaik aldizka ikuskatzeko kudeaketa-prozedurari buruzkoa, honela idatzita geratzen da:

Bat. Honela idatzita geratzen da 3. artikuluko 2. apartatua:

«2. Aldizkako ikuskapen guztiek dagokien ikuskapen-ziurtagiri, -txosten edo -akta egingo dute dagozkien erregelamendu sektorialek agindutakoaren arabera, eta dokumentu horien kopia entregatu beharko zaio instalazio edo ekipamenduaren titularrari, eta, hala dagokionean, enpresa mantentzaileari, 15 eguneko gehieneko epean ikuskapena egin zenetik, salbu eta akatsak oso larriak badira. Kasu horretan, ikuskapena edo dagokion berrikuspena amaitzen den unean bidali beharko da, eta, kasu guztietan, amaitzen denetik hogeita lau ordu pasatu baino lehen».

Bi. Honela idatzita geratzen da 5. artikuluko 2. apartatua:

«2. Ikuskapenean detektatzen diren akats guztiak ahalik eta azkarren zuzendu behar dira. Edozein kasutan, akats oso larriak hartutako kautelazko neurriak kendu aurretik zuzenduko dira, akats larriak kontrol-erakundeak edo gaitutako agente ikuskatzaileak horretarako ezarritako epean, eta akats arinak nahitaezko aldizkako hurrengo ikuskapena baino lehen».

Hiru. Honela idatzita geratzen da 6. artikulua:

«6. artikulua.- Oso akats larriak antzematen direnerako jarduketa.

1. Ikuskatutako instalazio edo ekipamenduan akats oso larriren bat aurkitzen bada, eta pertsonak, ondasunak edo ingurumena kaltetu baditzake, kontrol-erakundeak edo gaitutako agente ikuskatzaileak zuzenketa-neurri egokiak hartuko ditu instalazio edo ekipamendu industrialaren funtzionamenduari dagokionez. Hartutako neurriak arriskuarekiko proportzionalak izango dira eta behar-beharrezkoak arrisku hori saihesteko. Neurri horiek arriskua desagertu arte iraungo dute -harrarazi zituen arriskua desagertu arte-, eta akatsak konpontzeko behar den denbora edo beste neurri mota batzuk hartzeko beharrezko denbora gainditu gabe, betiere.

Zuzenketa-neurri jakin bat hartzekotan, teknikoki arrazoiturik egin beharko da, eta dena delako instalazioaren funtzionamenduaren edo ekipamenduaren eta arriskuaren artean zein harreman edo lotura kausal dagoen azaldu beharko da.

Instalazioa gelditzeko neurria soilik hartu ahal izango da bestelako zuzenketa-neurriak hartuta ezin bada saihestu arriskua gauzatea. Gelditze hori erabatekoa edo partziala izan daiteke, betiere, helburu berdina beteta, teknikoki posible bada.

2. Kontrol-erakundeak edo gaitutako agente ikuskatzaileak berehala jakinaraziko dio zuzenketa-neurriak hartu direla industria-arloan eskumena duen Lurralde Ordezkaritzari, eta zehaztuko da ea ikuskapena burutu ahal izan den ala ez.

3. Segurtasun industrialeko Administrazioaren organo eskudunak ofizioz aldi baterako eten ahal izango du, kontrol-erakundeak edo gaitutako agenteak ikusitako alderdietan oinarrituta, instalazioen funtzionamendua eta behar diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu ukitutako interesak babesteko».

Azken xedapenetako hirugarrena. Erregelamenduz garatzeko gaikuntza.

Segurtasun industrialean eskumena duen Saileko titularrak gaitzen da, bere eskumenen eremuan, behar diren erregelamenduak emateko Dekretu hau garatu eta gauzatzeko.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeita egunera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen,(e)koaren ...(e)(a)n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI

ZIRRIBORROA, 1 B